# A LABURR

# HAUR GASTEI IRAKHASTECO;

PIARRES DE LAVIEUXVILLE, Baïonaco Jaun Aphezpicuaren manuz imprimatua; Hau choilqui irakhatsia içanez Baïonaco Diocesan.

BIBLIOTECA CENTRAL
CAPUCHINOS
PAMPLONA



FF. MM. CAPUCCINORUM
BIBLIOTHECA
LECAROZ

BAYONAN,

P. FAUVET, Erreguerenetа Jaun Aphezpicuaren Imprimatçailea baithan.

M. DCC. XXXVI.

R. 83304

# BAYONACO

## JAUN APHEZPICUAREN

### MANAMENDUA,

Bere Dioceſan ikhas araci nahi duen Catichimaren publicatceco.

PIARRES DE LAVIEUXVILLE, *Jaincoaren graciaz eta Aita Sainduaren autoritatez Bayonaco aphezpicuac, Errotor, Bicario, Eſcola Nauſi, Familiaco Buruçagui, eta berce gure Dioceſan gazteriari irakhaſteco cargua dutenei; Salutancia eta Benediccionea.*

*Ene Anaja Maiteac, Apoſtoluei eta hequin preſunetan Eliçaco carguetan hequin ondeco behar diren guciei Jeſu-Chriſto gure Jaunac eman dioten leherbicico eguinbidea eta gutienic huts eguin behar dena da, populuen inſtruitcea, hei ſalbatceco jaquin behar dituzten gauçac irakhaſtea, prepara daitecin gatic eta diſpoſa Jaun haren bicitce nequezocaren*

[illegible] ne,
[illegible] batuz Sacram[illegible]
[illegible] aplicatcen baitiezt[illegible]
[illegible] merec[illegible] hari
[illegible] beguin [illegible] bere Aitaren gana.
[illegible] bere Glori[illegible] sarcera ciboan noment-
tuan: çoazte, instrui-çaçue Nacione gucia[illegible],
predica-çaçue Evangelioa mundu guciari, *
[illegible] diotçuedan [illegible] manatu darozquit-
çuedan gauça-gucien beguiratcen.

*Eta nola instruccione bequin cimenduac Catichimetan eguiten baitire, eta handic iguriquj behar den fruitu gucia baitago haste hautan, eta Jondoni Pauloc dioen beçala, † haurrei eman behar çajotcn esne hortan, janhari sendoago baten harceco gai daitezquen artean: Gure bisita eguin dugun demboran informatu gara haurrei irakhasteco cargua dutenec bero eguinbidea eguiteco duten arthaz: Eta erran baitarocute Diocesa huntacotz eguina içan den Catichimarie eztela, bat bederac nahi duena irakhasten duela, eta hala, Catichima eguiten duena aldatcen denean, haren irakhasteco manera eta hitzcunça aldatuz, haurrac gueldicen baitire deusic ungui jaquin gabe, eta bequin memorioa nekhatcen ¶ haita deliberatu augu Catichima baten eguitea, Diocesa gucian bigoaltasun baten eçarceco, eta*

* Matt. 28. v. 19. & 20. Marc. 16. v. 15.
† 1. Cor. 3. v. 2. ¶ Rom. 15. v. 6.

baurrei ikhasteco Jaincoaren laudatcen otz batez eta hitzcunza batez beraz.

Chede hortaz nahi içan ditugu imprimaraci bi Cathichima bat laburragoa, bercea luceago: Lehenbicicoa egun arguitara emaiten deroçueguna, ikasten hasten direnençat: bi-garrena ondoan aguertuca dena, ikhasteas aitcinago direnençat, eta guehiagoren ikhasteco gai direnençat. Batean gure Religioneco misterio principalac dire laburzqui esplicatuac: Bercean eguia hec berac içanen dire lucequiago eta chehequiago esplicatua; Istorioac eta exemplnac han içanen dire Escritura saindutic atberajac haur gastcac hebequi orhoit araztea gatic, eta ikhasteco gogo on bat hei emaitea gatic, noizere adituco baitituzte liburu sainduetan banatuac diren gauça eta Istorio miragarri hec. Berretuco ditugu oraino Catichemaco leccione Bakhotcharen ondoan hec berenez dakharzqueten praticac edo moralic, haurren bihotçac berthutearen praticura ikharcea gatic, bequin gogoa eta izpiritua Religioneco eguien eçagutçaz arguetcen den demboran; bide hartaz hequin barthuteac adinarequin batean indar har deçan amoreac gatic.

Lehenbicico Catichimaren hastean causituco dire eguia principalac are laburzquiago eçarriac, Aitec eta Amec bere haurrei minçatcen hasten diren dembora beretic irakhatsi behar diozcatenac, Eliçarat edo Escolara joaitteco as-

handi daitezquen artean, han icequiago eta chehequiago irakhasten eta esplicatcen de Catichimaren ikhasteco.

Eta çuec, ene anaja maiteac, arimen Aitzin soberano ac gure artharen azpian eçarri dituen guiristinoen salbamenduaren cargua gurequin batean duçuenac, othoizten çaituztegu, orhoit çaitezte çuen obligatione eta eguinbide handietaric bat dela, Catichima hunen irakhastea, eta esplicatcea ceboc, eta çuen herrietaco Eliça-guiçor, eta berce hartaco gai direnez eta talentua dutenez esplica araztea, guciz Igandetan eta Bestetan, Diocesa huntaco Ordenancec manatcen duten beçala. Çuen herrietan adin eta estatu gucietaco guiristinoac, haurrac nerhabeac,*çabarrac, eta sehiac çuen ganic bicitececo hitçaren oguiaren beguira daudez lehia sainda batequin, hauts çeçue beraz Jaincoaren hitçaren oguia, arimaco biciaren conserbatceco behar dutena; hartaco obligacione bat baduçue haguits handia eta hersic, eman çaitçue Ordenac hartcean choratuac içan çareten caractera errespetuzco harequin batean; hori bera agueri da Ispiritu Sainduac emaiten darozquitçuen icen eta calitate handi hetan, deitcen çaituztenean, Pepuluen Aitac, Doctorac, Arçainac, Aingueru agueriac; Diocesa huntaco leguecere erakhusteramaiten dute, beroc lekhu gucietan eguiten den eguinbide horren

* Thern. 4. v. 4.

*eguiteeco cein obligacione handia duçuen.*

*Delaric arren pena handia, adimendua orgino ungui ethorri etçajoten haurrei irakhaſten haritcea, eſperança dugu pena hura gogotic hartuco duçuela, baldin orhoitcen baçarete, Evangelioan agueri den beçala, Jeſu-Chriſto gure Jauna cein ona cen haur maite bequinçat cein maite cituen, cembat lehiarequin manatcen cituen bere Apoſtoluac, utz cetçatela halacoac haren gana hurbilcera*; Sinite parvulos venire ad me, & ne prohibueritis eos : † *cein ſamurtaſun handiarequin beſarcatcen cituen, eta emaiten cioten bere benediccionea* : Et complexans eos, & imponens manus ſuper illos, benedicebat eos : *nolaco amodiarequin bereciac çagozcan bere Ceruco Erreſumacotz* : Talium eſt enim Regnum Cœlorum.

*Hartuco duçue pena hura, baldin conſideracen baduçue çuen herrietan equin behar duçuen ungui gucia heldu dela landare gazte hequin ungui alchatcetic; hiri oſſoac eſtatu onean eçarceco eta bide onean emaiteco, handic haſi behar dela; çuen lanaren haſte eta Premicia hec direla bethi guthienic irauten dutenac; Catichimetan emaiten diozcatçuen lehenbicico eçaguitça hec ahanztea gaitz dela : eta guerthatcei denean nihor dembora lucez Jaincoaren bidetic urrun ibili ondoan, adin handi bateratcen denean bere baithan ſarcea, hori maiz*

†Marc, 10, v. 14.

*heldu dela lehenbician içan cituen instruccionē eta eçaguiça hetaric, ceinac orduan heldu baitire haren gogora: eta bere fruitua baitakharquete bere demboran.*

*Guisa hortan aplicatuz, haurrei irakhasteō eta hec bertuaren bidean eçarceco artha hortaz, irabacico dituçe laster Aitac eta Amac, hequin bihotcen nausi içanen çarete, bore fidancia çuen baithan eçarrico dute, eta bide hortaz errach içanen çaitçue çuen herriacungui gobernatcea, eta han nahi duçuen ungui eta probetchu gucien eguitea: haur hec içaiten direnean guero berac Buraso, içanen dute bere haurren ungui alchatceco, bercec hetas içan duten arta bera, guiristino guisa alchatuco tuzte, eta çuec hei eman içan diocuen bertuteco, pietateco eta debocioneco gogo ona hedaracico dute leitunic leinura, eta çuec içanen dituçue bide hortaz Eternitate dohaxucotz hainberce koroa, cenbat ere haur maite hetaric çuen irakasteco arthaz çarri baituqueçue salbamenduco bidean, Ispiritu Sainduac aguindu darotçuen beçala:* * Qui ad justitiam erudiunt multos, fulgebunt quasi stellæ in perpetuas æternitates.

*Et çuec Aitac eta Amac, othoizten çaituz tegu halaber orhoit çaitezte çuec çaretela Jaincoac eman daroz quitçuen haurren lehenbicico Evangelistac. Hequin lehenbicico gogoac*

* Daniel 12. v. 3.

ekhartea Jaincoaren ecagutcera, lehenbicico bitçaz Jaincoaren laudatcera, lehenbicico bihotz mandamenduac haren maitatcera: hori da çuençat eguinbide bat, ceinaz corta bersi bat Jaincoaren aitcinean errendatuco baituçue, hortan huts eguitea, huts icigarria laiteque; eta Jondoni Pauloc segurateen gaituenaz gueroz, bere etchecoei † irakhasteaz arthario eztutenec ukhatu dutela fedeaz, eta Paganoac baino gaichtoago dirella; consideratu behar duçue bequin instruccioneaz cargatuac çaretela, Jaincoac hortaz contu galdetuco daceiçuela bere jujamendico egun ikharagarri hartan, eta hortan huts eguiten baduçue, hortaz beraziçanen caretelan eternitate gucicotz condenatuac.

Hartaracotz exortatcen çaituztegu gure eguin ahal gucian, çuen haurrac eta çuen sehiac ibil arazteaz ardura Catichimetara, ceboc ere ibilceaz noicic behin bedere, ikhusteco ea beharden modestiarequin eta atencienarequin han egoiten diren handic horcen direnean hei contu errendaraz teaz han khasi dutenaz; erran araz teaz han aditu deituzten istorioac eta moralaco praticac; Catichima hau çuen familietam iratur arazteaz hequin eta çuen probetchucotz. Horrelaco artha onez eta saindiez alchatuco dituçue haur baiçuec, ceinac içanen baitire lurrean çuen bozcarioa

† Tim. 5. v. 8.

*eta ... olacionea, eta Ceruan çuen errecompensa. Hartaracotz bada ordenotcen diotegu gure Diocesaco Errotor, Bicario, escola Nausi, eta generalqui haurren instruitcen hari deren guciei, irakhats doçaten presenteco Catichima hau, eta hau segui deçaten gauça gucietan, hala maneran, nola bitzcurçan: debecatcen diotegu huntaz berceric irakhastea manatceen ditugu Errotor eta Confessor guciac, adineco Persunaric causitcen dutenan Guiristinoen doctrina asqui ungui eztaquitenic, hec Catichimetara ibil arazteaz, hei absolutioneric ez emaiteaz harat ibiliz edo berce cembait guisaz Catichima ikhasi duqueten artean; zamaitraz halaber absolucioneric Aitei eta Amei, Nausiei eta etheco Andrei, bere haurrac eta bere schias Catichimara bidali gabez, ignorantiam bicitcera uzten dituceino. Eta içanen da gure presenteco Manamendua iracurria eta publicatua herrietaco pregarioetan. Bayonan emana Erearoaren hogoian, mila çozpi ehun ena hogoi eta hemecam.*

† PIARRES, Bayonaco Aphezpicua.
*Jaun Aphezpicuaren manuz* SAINTPE', Secr.

# GOICECO OTHOITÇA

*ETCHECO GUCIEC ELKARREQUIN egrin behar luquetena.*

Aitaren, eta Semearen, eta Iſpiritu Sainduaren icenean. Halabiz.

*Orhoit gaitecin Jaincoaren aitcinean garela, eta adora deçagun Adoracionezco Acta batez.*

JAINCO guciz botheretſua, Aita, Semea, eta Iſpiritu Saindua, Jainco bat hirur preſunetan, ſinheſtendut baçarela munduco lekhu gucietan, eta bereciqui orai hemen çarela, adoratcen çaitut erreſpetu eta humiltaſun ahalic handienarequin, eçagutcen eta aithorcen dut eznaicela gai çure aitcinean aguerceco indaçu gracia othoitz hau eguiteco çure ohoretan eta ene ſaldamendutan. Halabiz.

*Hemen nahi duenac erranen ditu Jesu icen Sainduaren Letarinac.*

Esquer onezco Acta.

ENe Jaincoa, esquerrac darotzquitçut çun ene Aita onac eguin darozquidatçun gracia guciez, eta bereciqui ceren eman nauçun mundura, ceren erosi nauçun çure Seme bakharraren odol Preciatuaren gostux, ceren eguin nauçun çure Eliçaren ume., eta conserbatu ene biciteco oren eta momentu guciez, eta bereciqui joan den gau huntan.

*Orhoit gaitecin bat bedera Jaincoac eguin darocun graciaz, ceren eman darocun egugo eguna eternitateco egunaren irabazteco: Orhoit gaitecin egun hau eman daroccula gure salbamenduan trabailatceco; menturas gure biciaren azquen eguna hau dela: Har deçagun heraz borondate fermubat egun hau ungui emplegatceco, eta lehenago hilceco ere bekhatu mortal batez Jaincoa ofensatuto dugun baino.*

*Hemen egon behar da aphur bat gogoetan, maizenic eguiten ditugun bekhatuez orhoitcen, eta hei ihez eguiteco gogo eta borondate en bat hartu behar da.*

*Galde deçagun gaurco bekhatuen barkhamendua.*

ENe Jaincoa, indaçu othoi atço arraxaz gueroz eguin ditudan hutsen eta bekhatuen barkhamendua.

## *Ofrigaquizcon Jaincoari. Ofrimezduzco Acta.*

ENe Jaincoa, una ene bihotça, ceinac çure graciarequin batean hartu baititu borondate eta gogo onac, çure gana dakharzquet guciac, benedica çatçu, ene gogo on guciac atchic eta compli detçadan amoreac gatic çure ohoretan. Eguidaçu gracia çure borondate saindugaren eçaguteeco, eta eguiçu encaz placer duçuna; Ofrit-cen darozquitçut ene egungo gogoeta, phensamendu, hitu, obra, lan, pena eta sofricari guciac, emoçute, othoi çure benedicione saindua; Bei ene Salbatçailea, ene eguin ahal guciac çure cerbitçuan emplegatceco borondate eta gogo on bat harcen dut, guciac çureac dire, guciac çure ganic heldu dire, eta guciac çure baithan eçarcen ditut çure lagunça sainduaren azpian.

*Erran detçagun* Pater, Ave *eta* Credo.

PAter noster qui es in Cœlis;
1. Sanctificetur nomen tuum:
2. Adveniat regnum tuum;
3. Fiat voluntas tua sicut in Cœlo & in Terra.
4. Panem nostrum quotidianum da nobis hodiè;
5. Et dimitte nobis debita nostra, sicut & nos dimittimus debitoribus nostris.
6. Et ne nos inducas in tentationem:
7. Sed libera nos à malo.

1. AVe Maria, gratiâ plena, Dominus tecum;
2. Benedicta tu in mulieribus, & benedictus Fructus ventris tui Jesus.
3. Sancta Maria Mater Dei, ora pro nobis peccatoribus nunc & in horâ mortis nostræ. Amen.

1. CRedo in Deum, Patrem omnipotentem, Creatorem Cœli & Terræ.
2. Et in Jesum-Christum Filium ejus unicum Dominum nostrum,
3. Qui conceptus est de Spiritu Sancto, natus ex Maria Virgine,
4. Passus sub Pontio Pilato, crucifixus, mortuus, & sepultus,
5. Descendit ad inferos, tertiâ die resurrexit à mortuis,
6. Ascendit ad Cœlos, sedet ad dexteram Dei patris omnipotentis:
7. Indè venturus est judicare vivos & mortuos.
8. Credo in Spiritum sanctum.
9. Sanctam Ecclesiam Catholicam: Sanctorum Communionem:
10. Remissionem peccatorum:
11. Carnis Resurrectionem:
12. Vitam æternam. Amen.

*Nabi duenac erranen ditu escoaraz.*

Pater noster.

1. GUre Aita Ceruetant çarena erabil bedi sainduqui çure icena:
2. Ethor bedi çure erresuma:

3. Eguin bedi çure borondarea Ceruan beçala lurrean ere :
4. Igu çu egun gure eguneco oguia ;
5. Eta Batkha detçagutçu gure çorrac, gucgure gana çordun direnei barkhatcen derauztegun beçala :
6. Eta ezgaitçatçula uts tentamendutan erorcera ;
7. Aitcitit beguira gaitçatçu gaitcetic. Halabiz.

*Ave Maria.*

1. AGur Maria gracias bethea, Jauna de çurequin,
2. Benedicatua çara emazten artean, eta benedicatua da çure ſabeleco Fruitua Jeſus.
3. Maria Saindua Jaincoaren Ama eguiçu othoiz gu bekhatorençat orai eta gure heriotceco orenean. Alabiz.

*Credo in Deum.*

1. SInheſten dut Jainco Aita bothere gucia duena baithan, Ceruaren eta Lurraren Creatçailean ;
2. Eta Jeſu-Chriſto haren Seme bakhar gure Jauna baithan,
3. Cein concebitu baitcen Iſpiritu Sainduaren berthutez, ſotthu cen Maria Birgina ganic :
4. Pairatu çuen Poncio Pilatuſen manuarem aſpian ; gurutceficatu çuten, hil cen eta ehorci çuten :

5. Jautsi cen Ifernuetara, hirur garren eguneam jeiqui cenbiciric hilen arteric :
6. Igan cen Ceruetara, jarria dago Jainca Aita bothere gucia duenaren escu inean :
7. Handic ethorrico da bicien eta hilen jujatcera.
8. Sinhesten dut Ispiritu Saindua baithan :
9. Eliça Catholica Saindua, Sainduen partaliertasunean ;
10. Bekhatuen barkhamenduan :
11. Haraguiaren phiztean :
12. Bethiere iraunen duen bicitcean. Alabiz.

*Fedezco Acta.*

ENe Jaincoa, sinhesten ditut cinez eta fermuqui, Eliçac sinhesten eta irakhasten dituen gauça guciac, cere çuc hari irakhaxiac baitire ; eguidaçu othoi gracia sinheste hortan bicitceco eta hilceco.

*Esperançazco Acta.*

ENe Jaincoa, esperança dut Jesu-Christo gure Jaunaren merecimenduen berthutez emanen darotaçula egun batez çure Parabisuco Gloria saindua, eta mundu hunetan harat hedatceco hehar ditudan gracia guciac, ceren çuc aguindu baitarozquigutçu, eta çu baitçara guciz ona, eta çure hitçaren atchiquitceco leiala.

*Jaincoaren eta Guiristino lagunaren amudiozco Acta.*

ENe Jaincoa, maite çaitut ene bihotz guciaz eta gauça gucien gainetic, ceren çu baitçara guciz maitagarrir eta ahala perfeta, maite

dut halaber nere laguna ene burua beçala gure amoreac gatic.

*Jaincoari galdeguin behar caizconen othoitça Galdezco Acta.*

ENe Jaincoa, indatçu othoi bekhatu mortalic ez benialic eguin gaba egun hunen sainduqui iragaiteco behar ditudan gracia guciac, galdeguiten darozquitçut Jesu-Christo gure Jaunaren merecimenduen berthutez, eta hartaracotz ararteco emaiten darozquitçut Birgina Maria Saindua, ene Aingueru Beguiralaona, ene Patroin Saindua, eta Parabisuco Saindu guciac. Halabiz.

---

## ARRAXECO OTHOITCA.

Aitaren, eta Semearen, eta Ispiritu Sainduaren icenean. Halabiz.

*Orhoit gaitecin Jaincoaren aitcinean garela, eta adora deçagun.*

*Adoracionezco Acta.*

JAinco guciz botheretsua, Aita, Semea, eta Ispiritu Saindua, singestent dut çu causitceu çarela munduco lekhu gucietan, eta bereciqui orai hemen çarela, adoratcen çaitut errespetu eta humilitasun ahalarequin; eçaguteen eta aithorcen dut eznaicela gaiçure aitcinera aguereco; eguidaçu gracia, othoitz hau eguiteco çure ohoretan eta ene salbamendutan. Halabiz.

*Hemen nahi duenac erranen tu Birgina Maria Sainduaren Letharinac.*

*Esquer onezco Acta.*

ENe Jaincoa, esquerrac bihurcen darozquitçut Jesu-Christo gure Jaunaz, ceren eman gaitutçun mundura, eta conserbatu egungo egunean, eta berce gure bicitceco egun gucietan; ceren eman darocuçun çure Seme maitea gure salbatceco; ceren sor araci eta hil araci duçun gure gatic; ceren hain maiz barkatu darozquigutçun gure bekhatuab, eta çure Majestate dibinoac orainocoan eguin darozquigun gracia guciez: Othoizten çaitugu, Jauna, gracia berac hemendic harat guri eguiteaz, eta erraiten dugu hartaracotz.

*Hemen erran behar dire* Pater noster, Ave Maria, *eta* Credo *latinez edo escoaraz goiceco othoitcean beçala.*

*Galde deiçagun gure Jaunari bere gracia saindua eta Ispiritu Sainduaren arguiac gure bekatuen eçagutceco.*

ENe Salbatçaile dibinoa, adoratcen çaitugu gure Jujea beçala, ceinac egun batez jujatuco baicaitutçu; huna non gauden belhaurico jurtean jarriac çure oinetan erromes eta gaichtaguin batçuec beçala; othoizten çaitugu aha-

lic humilitaſun handienarequin guri eçagut arazteaz eta higuin arazteaz gure bekhatuac, çuc ceronec eçagutcen eta higuincen ditutçun beçala.

Iſpiritu Saindua, çato gure gana, çure argui ſainduaz argui çatçu gure arimac, eta gori çatçu eta bethe gure bihotçac çure amodio dibinoaren kharraz.

Examina gaitecin egun eguin ditugun bekhatu gucien gainean, Jaincoaren manamenduen eta Eliçaco en gainean, eta gure berce eguinbiden gainean, ea certan eguin dugun bekhaturic gogos, hitcez, obraz, edo eguin behar guinituen unguiac ez eguinez, orhoitcen garelaric bereciqui maicenic eguiten ditugun bekhatuez.

*Hemen ego behar da aphur bat ichilic, bekhatuaz orhoitcen.*

*Contricionezco Acta.*

ENe Jaincoa, barkhamendu eſque nagotçu humilqui ene bekhatu guciez, damu dut eta urriqui çure amoreac gatic, ceren guciz ona çarelaric, ofenſatu çaitudan, eta harcen dut borondate fermu bat, ez guehiago bekhauturic eguiteco çure graciarequin batean; halaber harcen dut borondate nere bekhatu guciez oſoqui cofeſatceco, eta emanen çaitan penitenciaren complitceco.

*Hemen erran behar da* Confiteor.

*Latinez edo Ezcoaraz.*

Confiteor Deo omnipotenti, Beatæ Mariæ ſemper Virgini, Beato Michaeli, Archangelo, Beato Joanni Baptiſtæ, Sancti Apoſtolis Petro & Paulo, omnibus Sanctis, & tibi Pater; quia peccavi nimis cogitatione, verbo & opere, meâ culpâ, meâ culpâ, meâ maximâ culpâ. Ideò precor Beatam Mariam ſemper Virginem, Beatum Michaëlem Archangelum, Beatum Joannem Baptiſtam, Sanctos Apoſtolos Petrum & Paulum, omnes Sanctos, & te Pater, orare pro me ad Dominum Deum noſtrum.

Miſereatur noſtri omnipotens Deus, & dimiſſis peccatis noſtris perducat nos ad vitam æternam. Amen.

Indulgentiam, abſolutionem & remiſſionem peccatorum noſtrorum tribuat nobis omnipotens & miſericors Dominus. Amen.

*Confiteor Ezcoaraz.*

Confeſatcen natçajo Jainco Aita bothere gucia duenari, Maria bethi Birgina Dohaxuari, Michaël Archangelu Dohaxuari, Joannes Baptiſta Dohaxuari, Petri eta Paulo Apoſtolu Sainduei, Saindu guciei, eta çuri, ene

Aita, ceren eguin baitun ſobera bekhatu gogoz, hitcez eta obraz, ene faltaz, ene faltaz, ene faltà handiaz; hartaracotz othoitz eguiten diot Maria bethi Birgina Dohaxuari, Michaël Archangelu Dohaxuari, Joannes-Baptiſta Dohaxuari, Petri eta Paulo Apoſtolu Sainduei, eta çuri ene Aita, eguin dioçoçuen enetçat othoitz gure Jainco Jaunari.

Jainco bothere gucia duenari urrical gaquizcola, eta gure bekhatuac barkhaturic helaraz gaitçala bicitce eternalera. Halabiz.

Gure bekhatuen barkamendua, abſolucionea, eta erremiſſionea eman deçagula Jainco bothere gucia duenec eta miſericordiaz betheac. Halabiz.

*Eliçaco behar gaciençac othoitz eguin deçagun.*

JAuna, conſerba çaçu othoi çure Eliça, emoçute çure lagunça ſaindua gure Aita Sainduari, gure Jaun Aphezpicuari, gure Erregueri, haren Etcheco guciei, erreſuma huni, Dioceſa huni, orai gu gareu Etcheaii. Jauna conberti çatçu bekatoroſac, conſerba çatçu Juſtuac barkha çoçute çure etſajei, ethoçute bicitce eternala gure unguieguilei, eta lagun çatçu bere arimaco eta gorphutceco behar gucietan gu hequinçar othoiz egui tera obligatuac garen guciac.

*Othoitçac eguin deiçagun hal-ber gure ahaide, adisquide, ungui-eguile, eta bercé arima juan diren guciençat.*

DE profundis clamavi ad te Domine; Domine exaudi vocem meam.

Fiant aures tuæ intendentes: in vocem deprecationis meæ.

Si iniquitates obſervaveris Domine: Domine, quis ſuſtinebit?

Quia apud te propitiatio eſt: & propter legem tuam ſuſtinui te Domine.

Suſtinuit anima mea in verbo ejus: ſperavit anima mea in Domino.

A cuſtodia matutina uſque ad noctem: ſperet Iſraël in Domino.

Quia apud Dominum miſericordia: & copioſa apud eum redemptio.

Et ipſe redimet Iſraël: ex omnibus iniquitatibus ejus.

Requiem eternam dona eis Domine: & lux perpetua luceat eis.

℣. A porta inferi.

℟. Erue, Domine, animas eorum.

℣. Domine exaudi orationem meam.

℟. Et clamor meus ad te veniat.

*Oremus.*

FIdelium Deus omnium conditor & Redemptor, animabus famulorum famularumque tuarum remiſſionem cunctorum tribue peccatorum: ut indulgentiam, quam ſemper

optaverunt, piis ſupplicationibus conſequantur. Qui vivis & regnas in ſæcula ſæculorum. Amen.

℣. Fidelium animæ per miſericordiam Dei Requieſcat in pace. ℟. Amen.

GUre Aingueru beguirale onac; gure Patroin Sainduac, Parabiſuco Saindu guciac, eta bereciqui çu Birgina Sainduа gure Ama ona, othoizten çaituztegu, har gaitçatçue, çuen luguınçaren azpian, Beguira gaitçarçue gau huntaco nahigabe eta arriſcu guichto gucietaric, eta ardiez deçaguçue çuen othoitz onez ungui bititcerco etabide hartaz heriotceon baten eguiteco gracia.

*Ofri de cogun Jaincoari gaurco gure loa.*

ENe Jaincoa, ofritcen darotçugu gaur hartuco dugun errepauſua, çuc cere baithan harcen duçun errepauſu eternalaren ohoretan, Jeſu-Chriſto gure Salbatçaile dibinoac lurrean hartu duenaren, haren heriotcearec, eta haren chorztearen ohoretan.

Jeſus dibinoa ofritcen darotçugu biharco gure iratçarcea, çure atçartaſunen etaphizte Sainduarem ohoretan eta batdaſunean adoratcen ditugu çuc batean eta berceaniçan ditutçun diſpoſicione ſainduac, eta hec beçalacoac içaiteco gracia galdeguiten darotçugu humiltaſun handi batequin.

Çato, ene Jeſus dibinoa, çato gure guna, eta bici çaite gure baithan mundu huntacotz eta eternitatecots. Halabiz.

# CATICHIMA:

## LABURZQUIEÇARRIA, HAUR CHUMERENEI IRAKHATSIBEHARÇA JENA.

### LEHENBICICO LECCIONEA.

Guiriſtinoez, eta Guiriſtinoen ſeinaleaz.

Galdea. *Guiriſtinoa çare?*
*Ihardeſtea.* Bai, Jaincoari eſquer.

G. *Cerda Guiriſtinoa?*

I. Guiriſtinoa da, batajatua içan delaric, Jeſu-Chriſto gure Jaunaren leguearen azpian bici dena.

G. *Cein da Guiriſtinoen ſeinalea?*

I. Hura da gurutcearen ſeinalea.

G. *Nola eguiten da gurutcearen ſeinalea?*

I. Gurutcearen ſeinalea eguiten da eſcu eſcuina emanic copetan, handic ſabelean, guero ezquerreco ſorbaldan, eta azquenic eſcuineco ſorbaldan, erraiten delaric: Aitaren, eta Semearen, eta Iſpiritu ſainduaren icenean. Halabiz.

G. *Noic creatu çaitu eta eman mundura?*

I. Jaincoac.

G. *Certaco*

G. *Certaco Jaincoac creatu çuitu eta eman mundura?*

I. Haren eçagutceco, maitatceco, eta cerbitçatceco, eta bide hortaz dicitce eternalaren ardiesteco.

---

## BI-GARREN LECCIONEA.

### Jaincoaz, eta Trinitate Sainduaz.

G. C*Er da Jaincoa?*

I. Jaincoa da Ispiritu bat ahala perfeta, Ceruaren eta lurraren Creatçailea, eta gauça gucien Jauna eta jabea.

G. *Non da Jaincoa?*

I. Lekhu eta gauça gucietan da.

G. *Jaincoa lekhu gucietan denaz gueroz, cergatic eztugu guc ikhusten?*

I. Ceren hura baita Ispiritu huts bat, gorphutic gabecoa.

G. *Badire hainitz Jainco?*

I. Ez, ezta Jainco bat baicic, eta ecin içan daiteque guehiago.

G. *Badire hainitz presuna Jaincoa baithan?*

I. Bai, badire hirur, Aita Semea, eta Ispiritu saindua.

G. *Aita Jainco da?*

I. Bai, Aita Jainco da.

G. *Semea Jainco da?*

I. Bai, Semea Jainco da.

G. *Ispiritu sainduaJainco da?*

I. Bai, Iſpiritu ſaindua Jainco da.

G. *Hirur preſuna hec hirur Jainco dire?*

I. Ez, hirur preſuna hec ezdire Jainco bakhar bat bera baicic.

G. *Cergatic hirur preſuna hec ezdire Jainco bat bera baicic?*

I. Ceren ezbaitute natura bat bera, eta Jaincotaſun bat bera baicic.

G. *Hirur preſuna hetan bada batere barcea baino handiagoric, ç harrageric, edo bothere guehiago duenic?*

I. Ez hirurac higoal dire gauça gucietan ceren ezbaitute natura bat bera, eta Jaincotaſum bat bera baicic.

---

## HIRUR-GARREN LECCIONEA.

### Incarnationeco Miſterioaz.

G. *BAda Trinitate ſainduco hirur preſunetarik batere gure gatic guiçon eguie denic?*

I. Bai.

G. *Cein da hura?*

I. Hura da Seme Jaincoa, Trinitate ſainduco bigarren preſuna.

G. *Cer erran nahi da guiçon eguitea?*

I. Erran nahi da, guc ditugun beçalaco gorphutz baten eta arima baten harcea.

G. *Jaincoaren Semea non eguin da guiçon?*

I. Bere Ama Birgina Maria glorioſaren ſabel ſacratuan Iſpiritu ſainduaren berthutez.

G. *Jaincoaren Semea cein egunez eguin cen guiçon?*

I. Birgina sainduaren Anunciacioneco eguneán, ceina baita Marchoaren hogoi eta bortça.

G. *Cein egunez sorthu cen?*

I. Eguberri eguneán, Abendoaren hogoi eta bortçean.

G. *Cein egunez circoncisatu çuten?*

I. Sorthu cenetic çorci-garren eguneán, ceina deitcen baita Circoncisioneco eguna edo Urthaberti.

G. *Cer icen eman cioten?*

I. Deithu çuten JESUS.

G. *Cer erran nahi da hitz hau,* JESUS?

I. Erran nahi da Salbatçailea.

G. *Cein egunez adoratu çuten Magoec edo hirur Erreguec?*

I. Trufania eguneán, ceina deitcen baita bercela Arreguen eguna.

G. *Jesu-Christo gure Jaunac cein egunez ordenatu çuen aldareco Sacramendu Sainduа edo gorphutz Sainduaren Sacramendua?*

I. Orcegun sainduz, hil cen egunaren bezberan.

---

## LAUR-GARREN LECCIONEA.

### Gure Erospenaz.

G. J*Aincoaren Semea cergatic eguin da guiçon?*

I. Bekhaturic eta Ifernutic gu erostea gatic.

G. *Norc merecitu carocun Ifernua, eta eguinguinituen bekhatuas faltaduri?*
I. Hure Ichenbicico Aita Adamec.
G. *Noli hori?*
I. Jaincoac debecatu cioen fruitutic janic.
G. *Jesu-Christo gure Jaunac nolacrosi gaitu?*
I. Gurutce batean guretçat hilic.
G. *Cein egunez hilcen?*
I. Hil cen Orcilare sainduz.
G. *Cein egunez phizttu cen?*
I. Bazco egunean.
G. *Cein egunez igan cen Cerura?*
I. Jondoni Salbatorez.
G. *Cein egunez igorri cioen Ispiritu Saindua bere Eliçari?*
I. Mendecoste egunean, phiztu cenetic berrogoi eta hamar egunen buruan.

---

## Borz-garren Leccionea.

### Sacramenduez.

G. C*Er de Sacramendua?*
I. Sacramendua da ecin ikhus daitequen gracia baten seinale agueri dena, Jesu-Christo gure Jaunac ordena tua gure arimen garbitceco eta graciaz bethetceco.
G. *Cembat Sacramendu dire?*
I. Badire çazpi Sacramendu. 1. Bathajoa. 2. Confirmationea, 3, Gorphutz saindua, 4,

Penitencia. 5. Annuncioa. 6. Ordena, eta 7. Ezconça.

G. *Cer da Bathajoa?*

I. Bathajoa da Sacramendu bat, ceinac barkhatcen baitarocu bekhatu originala, eta eguiten baicaitu guiriſtino, eta Jaincoaren eta Eliçaren ume.

G. *Cer da Confirmationea?*

I. Confirmacionea da Sacramendu bat, ceinac emaiten baitarocu Iſpiritu ſaindua bere dohaïnequin, eta gure biciaren ariſcutan bada ere, Jeſu-Chriſtoren fedearen atchiquitceco eta cofeſatceco graciarequin.

G. *Cer da Gorphutz Saindua?*

I. Gorphutz Saindua da Sacramendu bat, ceinetan edireiten baitire eguiazqui eta erreal-qui Jeſu-Chriſto gure Jaunaren gorphutça, odola, arima eta Jaincotaſuna oguiaren eta mahax arnoaren idurien edo itchuren azpian.

G. *Cer da Penitencia?*

I. Penitencia da Sacramendu bat, ceinac barkhatcen baititu bathajatuz gueroz eguin ditugun bekhatuat.

G. *Cer da Anuncioa?*

I. Anuncioa da Sacramendu bat, eriei arimaco eta gorphutceco behar dituzten lagunça guicien emaitceco ordenatua.

G. *Cer da Ordena?*

I. Ordena da Sacramendu bat, ceinac Elçaguiçonei emaiten baitiote bothere eta indar-

Eliçaco eguinbiden eguiteco, eta hequin ungui eguiteco gracia.

G. *Cer da Ezconça?*

I. Ezconça da Sacramendu bat, ceinac santificatcen baitu guiçonaren eta emaztearen arteco societate edo batasun çucena eta legitimoa, eta emaiten baitiote gracia bere haurren hazteco eta alchatceco Jaincoaren beldurtasunea an.

G. *Egoiçu Jaincoaren eta lagunaren amodiozco Acta bat.*

I. Ene Jaincoa, maite çaitut ene bihotz guciaz eta gauça gucien gainetic, ceren çu baitçara ossoqui maitagarria eta ahala perfeta; maite dut halaber nere laguna ene burua beçala çure amoreac gatic.

G. *Eguiçu contricionezco Acta bat.*

I. Ene Jaincoa, barkhamendu esque nagotçu humilqui ene bekhatu guciez, damu dut eta urriqui çure amoreac gatic, ceren guciz ona çarelaric ofensatu çaitudan, eta harcen dut borondate fermu bat ez guehiago bekhaturic eguiteco çure graciarequin batean, halaber harcen dut borondate nere bekhatu guciez ossoqui cofesatceco, eta emanen çaitan penitenciaren complitceco.

*Aitec eta Amec irakhatsi behar diozcat oraino haur chume hei* Pater noster, Ave Maria, Credo, *Jaincoaren manamendu sainduac, eta Eliça Ama sainduaren manamenduac.*

# BAYONACO DIOCESACO LEHENBICICO CATICHIMA, HAUR GAZTENC AT EGUINA.

*Aitcinageco Galdeac.*

## LEHENBICICO LECCIONEA.

### Catichimaz.

Galdea. *CEr du Catichima?*

*Ihardesten.* Catichima da inſtruccione familier edo chehe bat ceinetan ikaſten baita Jaincoaren eçagutcen eta haren cerbitçatcen.

G. *Cer irakhaſten da Catichiman Jaincoaren, eçagutcen eta cerbitçatcen ikhaſteco?*

I. Han irakhaſten da guiriſtinoen leguea labutzqui.

G. *Cer da Guiriſtinoen leguea?*

I. Hura da Jeſu-Chriſto gure Jaunac mundura jaut ſiric irakatſi darocuna, eta Eliça Ama ſainduac haren icenean irakhaſten darocuna.

G. *Eguinbide handia da eta premiazcoa Catichimarat ibilcea?*

I. Bai, ceren han ikhaſten baita cer eguin behar dugun eta cer jaquin behar dugun ſalbatuac içaiteco.

G. *Norc igorri behar du bat bedera Catichimara?*

I. Aitec eta Amec barat igorri behar tuzte te-bere umeac, eta Nausiec eta etcheco Andrec bere sehiac.

G. *Cer chederequin ibili behar na Catichimara?*

I. Han ungui ikasteco chede eta guticia handi batequin.

G. *Nola ibili behar da Catichimara?*

I. Behinere huts eguin gabe, atencionerequin eta modestqui.

G. *Catichimaren ondoan cer eguin behar da hartaz ungui probotchatceco?*

I. Han aditu direnac eguin, eta hec erran etcheco harat ecin joan direnei.

---

## Bi-garren Leccionea.

### Guiristionez, eta Guiristinoen seinaleaz.

G. G*Viristinoa çara?*

I. Bai Jaincoari esquer.

G. *Cer da Guiristinoa?*

I. Guiristinoa da bathajatua içan den ondoan Jesu-Christo gure Jaunaren leguearen azpian bici dena.

G. *Gracia handia da Guiristino içaitea?*

I. Bai, hura da Jaincoac mundu huntan eguin ahal deçaquegun gracia handienetaric bat.

G. *Cer da gracia hura?*

I. Hura da içaitea Jaincoaren ume, Jesu-Chris-

toren miembra, eta Cetuco primu.

G. *Cein da guiristinoaren seinalea?*

I. Hura da Gurutcearent seinalea.

G. *Nola eguiten da Gurutcearen seinalea?*

I. Gurutcearen seinalea eguiten da escu escuina emanic copetan, handic sabelean, guero ezquerreco sorbaldan, eta azquenic escuineco sorbaldan, erraiten delaric; Aitaren, eta Semearen, eta Ispiritu Sainduaren icenean. Halabiz. Edo latinez: *In nomine Patris, & Filii, & Spiritûs Sancti. Amen.*

G. *Noiz eguin behar da bereciqui Gurutcearen seinalea?*

I. 1°. Goicean ohetic jeiquitcean, eta arraxean oheracoan. 2°. Lanean hasteracoan. 3°. Jateracoan. 4°. Cenbait arriscu edo cenbait tentamendu duguneàn.

---

CATICHIMAREN LEHENBICICO PARTEA.

Guiristinotasuneco eguien gairean:

LEHENBICICO LECCIONEA.

# JAINCOAZ.

G. C*Er de Jaincoa?*

I. Jaincoa da Ispiritu bat ahala perfeta, Ceruaren eta lurraren Creatçailea eta gauça gucien Jauna eta Nau sia.

G. *Cergatic erraiten duçu Jaincoa dela Ispiritu bat?*

I. Ceren Jaincoac ezbaitu, ex gorphutcic, ez coloreric, ez figuraric edo molduraric, eta gure ſenſuez ecin ſenti baiteçaquegu.

G. *Cergatic erraiten duçu ahala perfeta dela?*

I. Ceren Jaincoac baititu perfeccione guciac, eta haren perfeccione ezbaitute chederic edo mugarriric.

G. *Jaincoa içatu da bethi danic?*

I. Bai, Jaincoac ezdu içatu egundaino haſteric, eta eztu içanen behin-ere akhabançaric.

G. *Non da Jaincoa?*

I. Lekhuera gauça gucietan da.

G. *Jaincoa lekhu gucietan denaz gueroz, cergatic ezdugu guc ikhuſten?*

I. Ceren hura baita Iſpiritu huts bat, gorphutcit gabecoa.

G. *Guc Jaincoa ez ikhuſia gatic arren, hare ikhuſten gaitu gu?*

I. Bai, harc ikhuſten, tu gauça guciac, aditcen tu guciac, eta eçagutcen tu gure barneco gogo eta gucietarainocoac.

G. *Cembat dire gure legue ſainduco Myſterio principalac?*

I. Hirur dire, Trinitate Saindua, Incarnacionea, eta gure Eroſpena edo Redempcionea.

# Ei-garren Leccionea.

## Trinitate Sainduaz.

G. *Badire hainits Jainco?*
I. Ez, ezda Jainco bat baicic, eta ecin içan daiteque guehiago.
G. *Badire hainitz presuna Jaincoa baithan?*
I. Bai, badira hirur, Aita, Semea, eta Ispiritu Saindua.
G. *Aito Jainco da?*
I. Bai, Aita Jainco da.
G. *Semea Jainco da?*
I. Bai, Semea Jainco da.
G. *Ispiritu Jainco da?*
I. Bai, Ispiritu Saindua Jainco da.
G. *Hirur presuna hec hirur Jainco dire?*
I. Ez, hirur presuna hec ezdire Jaincoa bakhar bat bera baicic.
G. *Cergatic hirur presuna hec ezdire Jainco bat bera baicic?*
I. Ceren ezbaitute natura bat bera, eta Jaincotasun bat bera baicic.
G. *Nola deitcen de Mysterio hori?*
I. Trinitate Sainduco Mysterioa.
G. *Cer da Trinitate Saindua?*
I. Trinitate Saindua da Jainco bakhar bat hirur pesunetan, Aite, Semea, eta Ispiritu Saindua.
G. *Hirur presuna hetat bada batere bercea*

*baino handiagoric, çabaragoric, edo bethere guehiago duenic?*

I. Ez, hirurac higoal dire gauça gucietan, ceren ezbaitute natura bat bera, eta Jaincotasun bat bera baicic.

G. *Eguiçu fedesco Acta bat Trinitate Sainduco Mysterioaren gainean?*

I. Ene Jaincoa, sinhesten dut cinez eta fermuquiçu çarela Jainco bakhar bat hirur presunetan, Aita, Semea, eta Ispiritu Saindua, ceren çuc hala irakhatsi baitioçu Eliça Ama Sainduari.

## Hirur-garren Leccionea.

Jaincoac nola creatu cituen gauça guciac eta bereciqui Ainguruac.

G. *NOrc creatu du Mundua?*

I. Jaincoac.

G. *Cerçric Jaincoac creatu du Mundua?*

I. Ez deusetaric.

G. *Norc gobernatcen du Mundua?*

I. Jaincoac bere probidenciaz.

G. *Cer dire Ainguruac?*

I. Ainguruac dire Ispiritu hutz barçuec gorphutcic gabecoac, Jaincoac bere manuen eraguiteco creatu dituenac.

G. *Cer estatutan Jaincoac creatu cituen Ainguruac?*

I. Cietatu

I. Cietatu cituen graciazco eta saindutasunezco estatuan.

G. *Aingueruec iraun dute bethi gucice graciazco eta saindutasunezco estatu hartan?*

I. Ez gucicc; batçuec iraun dute bethi estatu hartan; bainan berceac estatu hartaric erori ciren bere orguïluaz edo superbiotasunaz.

G. *Nola deitcen dire graciazco estatu hartan ircun dutenac?*

I. Hec deitcen dire Ainguern onac, edo choilqui Ainguernac.

G. *Nola deitcen dire graciazco estatutic bere orguilnaz erori cirenac?*

I. Hec deitcen dire Ainguern gaichtoac, edo bercela Deabruac.

G. *Cer eguin ciren Ainguern gaichtoac bekhatu eguin çuten ondoan?*

I. Içan ciren Parabiscutic khenduac, eta Ifernurat artiquiac.

---

## LAUR-GARREN LECCIONEA.

Guiçona nola içan cen creatua, eta nola eguin çuen bekhatu.

G. N*Orc creatu gaitu, etaeman mundura?*

I. Jaincoac.

G. *Certaco Jaincoac creatu gaitu eta eman mundura?*

I. Haren eçagutceco, maitatceco, eta cerbitçaceco, eta bide hortaz bicitce eternalaren ardiesteco.

G. *Ce'n ciren Jaincoac creatu cituen lehenbicico guiçona eta emaztea?*

I. Hec ciren Adam eta Eva gure lehenbicico burasoac.

G. *Cergatic hec deitcen dituçu gure lehenbicico burasoac?*

I. Ceren hequin ganic ethorri baitire guiçon eta emaztequi guciac.

G. *Certaric Jaincoac eguin çuen lehenbicico guiçona?*

I. Lurretic eguin çuen.

G. Cer *estatuan Jaincoac creatu cituen Adam eta Eva?*

I. Graciazco estatuan.

G. *Denbora hainitcez iraun çuten graciazco eta inocenciazco estatu hartan?*

I. Ez, creatuac içan cirenetic denbora laburric artean bekhatu eguin çuten.

G. *Nola errori ciren bekhatuan?*

I. Jaincoac debecatu cioten fruitutic janic.

---

## Borz-garren Leccionea.

### Gure erospenaz.

G. *Cer estatutan cen Mundua Jesu-Christo gure Jaunamundura ethorri baina lehen?*

I. Munduco gende guchienec eta casic guciec adoratcen cituzten Idolac erran nahi da, Jaincofalsoac, eta bekhatuan pulunpatuac ciren.

G. *Jaincoac nola ikhi araci ditu guiçonat bekhatutic?*

I. Hartacotz igoriric mundura Jesu-Christo bere Seme bakharra, ceina hil-baita Gurutcean guiçon gucien erosteco eta salbatceco.

G. *Nola deitcen da Jesu-Christo gure Jaunac bere heriotceaz merecitu darocun gracia hori?*

I. Gure erospeneco gracia.

G. *Cer da gure erospeneco gracia?*

I. Bekhatutic eta Ifernutic libratuac içaitea, eta Parabisuan dretcho içaitea, edo çucen içaitea.

---

## Sei-garren Leccionea.

### Incarnacioneco Mysterioaz.

G. B*Ada Trinitate sainduco hirur presunetaric batere gure gatic guiçon eguindenic?*

I. Bai.

G. *Cein da hura?*

I. Hura da Seme Jaincoa, Trinitate sainduco bi-garren presuna.

G. *Cer erran nahi da guiçon eguitea?*

I. Erran nahi da guc ditugun beçalaco gorphutz baten eta arima baten harcea.

G. *Nola deitcen da Mysterio hori?*

I. Deitcen da Incarnacioneco Mysterioa.

G. *Jaincoaren Semea Jainco içaitetic gueldituda guiçon eguin denean?*

I. Ez, denbora berean Jainco eta guiçonda, eta hala içanen da Eternitate gucian.

G. *Aita eta Ispiritu Saindua ezdire eguin guiçon Semea beçala?*

I. Ez, esta Semea baicic batere guiçon eruin.

G. *Nola deitcen da Jaincoaren Seme guiçon Eguina?*

I. Deitcen da Jesu-Christo.

G. *Cer erran nahi da icen hau* JESUS?

I. Erran nahi da *Salbatçailea.*

G. *Cer erran nahi da* CHRISTO?

I. Erran nahi da gançutua eta sacratua.

G. *Cembat natura dire Jesu-Christo baithan?*

I. Badira bia, Jaincoarena eta guiçonarena.

G. *Cembat presuna dire Jesu-Christo bathan?*

I. Ezta bat baicic, ceina baita Jaincoaren Semearen presuna.

---

## CAZI-GARREN LECCIONEA.

### Gauça beraren seguida.

G. JAincoaren Semea non eguinda guiçon?

I. Bere Ama Birgina Maria gloriosaren sabel sacratuan, Ispiritu Sainduaren berthutez.

G. *Ispiritu Sainduac certaric eguin çuen Jaincoaren Semearen gorphutçaz?*

I. Ama Birginaren odolic garbienetic.

G. *San Joseph ezta beraz Jesu-Christoren Aita?*

I. Ez, Jesu-Christoc guiçon beçala eztu Aitaric.

G. *Cergatic bada San Joseph deitcen da haren Aita?*

I. Lehenbicicoric, ceren harc haci eta alchatu baitu: bigarrenecoric, hura baita haren Ama Birgina Maria Sainduaren Esposa.

G. *Birgina Saindua Jaincoaren Semearen Ama eguin denean, gueldituu da Birgina içaitetic?*

I. Ez, guelditu da bethi Birgina.

G. *Birgina Maria Saindua eguiazqui Jaincoaren Ama da?*

I. Bai, ceren Jesu-Christo haren Semea Jainco eta guiçon baita biac elkharrequin.

---

CORCI-GARREN LECCIONEA.

Gauça beraren seguida.

G. *JAincoaren Semea cein egunez eguin cen guiçon?*

I. Anunciacioneco egunean, ceina baita Marchoaren hogoi eta bortça, Andredena Maria Marchocoa.

G. *Cein egunez sorthu cen?*

I. Eguberri egunean, ceina baita Abendoaren hogoi eta bortça.

G. *Cein egunez circonsisatu guten, eta eman cioten icena* JESUS?

I. Sorthu cenetic çorci garren egunean, ceina

deitcen baita Circoncisioneco eguna edo Urtaberri.

G. *Cein egunez adoratu çutcu Magœc edo hirur Erreguec ?*

I. Trufania egunean, ceina deitcen baita bercela Erreguen eguna.

G. *Jesu-Christo gure Jauna cerbat demboraz bici içan do mundu huntan ?*

I. Hogoi eta hamahirur urthez eta guehicheagoz.

G. *Nola bici içan da ?*

I. Eraman du bicitce bat pobrea eta nequezcoa.

G. *Cer eguiten çuen bere gaztetasuneco lehenbicico urthetan ?*

I. Obeditcen cituen bere burasoac, eta lanean haritcen cen san Josephequin.

G. *Cer eguin du bere bicitceco azquen urthetan ?*

I. Predicatu du Evangelioa.

---

BEDERATCI-GARREN LECCIONEA.

Gauça beraren seguida.

G. *CEin egunez hil cen Jesu-Christo gure Jauna ?*

I. Hil cen Orcilare Sainduz.

G. *Nola hil cen ?*

I. Gurutcearen gainean.

G. *Cer aditcen duçu erraiten duçunean Jesu-Christo gure Jauna hil dela ?*

I. Aditcen dut haren arima ilkhi eta berecidela, haren gorphutcetic.

G. *Hura hil cenean cer eguin çuten haren gorphutça ?*

I. Guruitcetic khendu çuten, eta eçarri Thomba batean.

G. *Jesu-Christo gure Jauna hil cenean, haren arima eta gorphutça bereci edo separatu ciren Jaincotasunetic ?*

I. Ez, Jaincotasunarequin bethi juntatuac gueldítu ciren.

G. *Jesu-Christo gure Jaunac cergatic pairatu eta sofritu çuen heriotce bat hain cruela, eta hain ahalcagarria ?*

I. Bekhatutic eta Ifernutic guerostea gatic.

G. *Jesu-Christo gure Jauna Thomban egon da bethi ?*

I. Ez, handic ilkhi cen glorios, hil cenetic hirur-garren egunean.

---

HAMAR-GARREN LECCIONEA.

Gauça beraren seguida.

G. CEin egunez phiztu cen *Jesu-Christo gure Jauna ?*

I. Bazco egunean.

G. *Cer aditcen duçu gure Jauna phiztu dela diocunean ?*

I. Aditcen dut berriz hartu duela bicitce berria.

bat, ceinetaric ez baita guehiago hilen.

G. *Cer eguin çuen Jesu-Christo gure Jaunac phiztutcen ondoan?*

I. Mundu huntan egon cen berrogoi egunez bere Apostoluei irakhasten, eta bere Eliçoren fincat cen.

G. *Berrogoi egun bequin ondoan cer eguin cen?*

I. Igan cen Cerura, eta han jarria dago bere Aitaren escuinean.

G. *Cein egunez igan cen Ceruetara?*

I. Jondoni Salbatorez.

G. *Non da orai Jesu-Christo gure Jauna?*

I. Jainco beçala lekhu gucietan da, bainan guiçon beçala Ceruan da choilqui eta Aldareco Sacramendu sainduan.

G. *Jainco beçala pairatu du eta hil da?*

I. Ez, ezta hil guiçon beçala baicic.

G. *Baldin guiçon beçala baicic hil ezbada eta sofritu ezbadu, nondic dute bada haren heriotceac eta oinhacec edo sofricariec merecimendu infinitua eta ahala handia?*

I. Cer en Jainco beçala eman baitcioten merecimendu handi eta infinitu hura guiçon beçala pairatu dituen heriotceari, sofricarei, eta accione guciei.

---

## Hameca-garren Leccionea.

### Eliça Ama sainduaz.

G. *Cein da Jesu-Christo gure Jaunac Cerurat igan cen ondoan bere Apostoluei,*

*eta bequin presunetan bere Eliçari eguin cioten graciam berecia?*

I. Igorri cioten Ispiritu Saindua, hits eman cioten beçala.

G. *Cein egunez igorri cioen Ispiritu Saindua bere Eliçari?*

I. Mendecoste egunean, phistu cenetic berrogoi eta homar egunen buruan.

G. *Jesu-Christo gure Jaunac cergatit igorri cioen Ispiritu Saindua bere Eliçari?*

I. Haren sanctificatceco eta gobernatceco.

G. *Cer da Eliça?*

I. Eliça da fedea dutenen bilcuja, Arçain legitimoez gobernatua, aitcindari edo buruçagui agueri den baten azpian, ceina baita gure Aita-Saindua, Jesu-Christoren lurreco Bicarioa.

G. *Cein dire Arçain legitimo edo çucenezco hec?*

I. Hec dire Jaun Aphezpicuac, ceinac, Ispiritu Sainduac eçarri baititu Eliçaren gobernatceco. *Act.* 20. 28.

G. *Cenbat Eliça dire?*

I. Ezta bat baicic, ceina baita Eliça Catolicoa, Apostolicoa, eta Romanoa.

G. *Salba gaitezque Eliça hartaric campoan?*

I. Ez, Eliça hartaric campoan ezta salbamendutic.

G. *Nor da Eliça Catolico, Apostolico eta Romanoaren aitcindaria eta buruçaguia?*

I. Jesu-Christo gure Jauna da Eliçaco aitcindari eta buruçagui agueri eztena, eta haren azpian gure Aita Saindua da Eliçaco aitcindari agueri dena.

G. *Cerbat denboraz iraun behar du Eliça Ama Sainduac ?*

I. Iraunen du munduac beçanbat.

---

## Hamabi-garren Leccionea.

### Guiçonaren azquen finez.

G. *Cer dire guiçonaren azquen finac ?*

I. Heriotcea, Jujamendua, Parobisua, eta Ifernua.

G. *Cer da Heriotcea ?*

I. Heriotcea da Arima gorphutcetic ilkhitcea eta bereztea.

G. *Guciac hilen gara noizbait ?*

I. Bai, Jaincoac nahi eta placer duenean.

G. *Hil eta ondoan cer eguinen da gure gorphuça ?*

I. Lurrerat eramanen dute.

G. *Han egonen da bethi ?*

I. Ez, bainan phiztuco da munduaren akhabançan jujamendu generaleco egunean.

G. *Gure Arima hilen da gorphuça beçala ?*

I. Ez, Ceren immortala baita, erran nahi da ecin hil daitequena.

G. *Cer eguinen da gure Arima gorphutcetic bereziten denean ?*

I. Joanen da Jaincoaren aitcinera, han jujatua içaiteco.

G. *Ceren gainean içanen da jujatua?*

I. Bicitce huntan eguin dituzquen obra onen edo gaichtoen gainean.

G. *Jujamendu haren ondoan cer bihur uco da?*

I. Nola merecitu baitu eta hala joanen da Parabisura, Ifernura, edo Purgatoriora.

---

## Hamahirur-garren Leccionea.

### Gauça berraren seguida.

G. *Cer da Jaincoac Justuei eguindu dioten errecompensa?*

I. Hequin arima eta gorphutça eternitateco gloriaz goçatcea.

G. *Nola deitcen da Justuac gloria hartaz goçatcen diren lekhua?*

I. Parabisua.

G. *Cer da Parabisua?*

I. Hura da descansuzco eta bozcariozco lekhu bat, ceinetan Dohaxuec ikhusten baitute Jaincoa, eta errecibitcen bere obra onen errecompensa.

G. *Ezta joanen gure Arimez berceric Parabisura?*

I. Bai, gure gorphutçac ere joanen dire Parabisura Jujamendu generalaren ondoan.

G. *Nor dire Parabisuan direnac?*

I. Hec dire bekhaturic eguin ezdutenac, edo

bekatu eguin ondoan Jaincoaren justicia ossoqui pagatu eta satisfatu dutenac.

G. *Cer da P. rgatoria ?*

I. Hura da lekhu bat, ceinetan Justuen Arimec Ceruan sarthu baino lehen pagatcen baititutzte bere bekhatuen pena hondarrac.

G. *Guc eguin de çoquegute lagunçaric Purgatorioan diren Arimei ?*

I. Bai, eguin deçoquegute eta eguin behar diotegu lagunça.

G. *Nola lagun ahal detçaquegu ?*

I. Gure othoitcez, amoinez, Meçaco Sacrificio sainduas : eta hequin lagunceco chedan Jaincoari ofritcen diotçagun berce obra onez.

---

## HAMALAUR-GARREN LECCIONEA.

### Gauça beraren seguida.

G. *CEr içanen de gaichtoen pena hilcen diren ondoan ?*

I. Bi pena sofrituco tuzte, Arimacoa eta gorphutcecoa.

G. *Cer içanen da Arimaco peno ?*

I. Jaincoaz gabetua içanen da, eta Ifernuan tormentatua eternitate gucian.

G. *Cer içanen da gorphuiceco pena ?*

I. Phiztu den ondoan, eta azquen jujamenduaren ondoan eternitate gucian Ifernuan erretcea.

G. *Cer da Ifernua ?*

I. Ifernua

I. Ifernua da oinhacezco eta tormentazco lekhu bat, ceinetan bekhatu mortalean hilcen direnec ezbaitute ikhusico Jaincoa, eta deabruequin erreco baitire eternitate gucian.

G. *Cenbat bekhatu mortal behar dire Ifernuaren merecitceco?*

I. Bat bakharra asqui da.

G. *Cer diferencia da Purgatorioco penen eta Ifernuco penen artean?*

I. Purgatorioco penac akhabatuco dire, bainan Ifernuco penec iraunen dute bethi, dehinere akhabatu gabe.

---

## HAMABORZ-GARREN LECCIONEA.

### Apostoluen Symbolas, edo Credoaz.

G. C*Er da Apostoluen Symbola edo Credoa?*

I. CHartan dire Guiristinotasuneco Mysterio principalac eta sinhexi behar ditugun gauçac laburzqui eçarriac, eta hura heldu çaicu Apostoluen ganic.

G. *Erraçu* Credo *latinez eta Escoaraz?*

I. *Credo in Deum, &c.* Sinhesten dut, &c. ikus çaçu goiceco Othoiça, *pag. 5. eta 7.*

G. *Cerche derequin erran behar dugu Credoa?*

I. Handiren gauçac sinhestera eta atchiquitcera huts eguinen dugun baino lehen hilceco ere gogoarequin erran behar dugu Credoa.

G. *Cenbat articulu dire Credoan?*

I. Badire hamabi articulu.

G. *Erraçu lehena?*

I. Sinheſten dut Jaincoa Aita bothere gucia duena baithan, Ceruaren eta lurraren Creatçailean.

G. *Cer erran nahi dabitz hau*, Sinheſten dut?

I. Erran nahi da, eguiac dagozcan ſede fermu batequin Credoan diren gauça eta articulu guciac.

G. *Cer aditcen duçu berce hiez hautaz*, Sinheſten dut Jaincoa baithan?

I. Aditcen dut ſeguratua naicela badela Jainco bat, eta ecin içan daitezquela hainitz Jainco.

G. *Cergatic erraiten duçu*, Sinheſten dut Jaincoa baithan, *eta ezduçu erraiten cholqui*, Sinheſten dut Jaincoa, *erran gabe*, baithan?

I. Erakhuſtera emaiteco ene fidancia gucia Jaincoa baithan dudala eçarria.

---

## Hamasei-garren Leccionea.

### Credoaren ſeguida.

G. C*ergatic erraiten duçu*, Jainco Aita baithan?

I. Erran nahi da, nola Jaincoa baithan hirur preſuna baitire, lehena deitcen dela Aita.

G. *Cergatic deitcen duçu Aita?*

I. Ceren eternitate gucitic engendratcen, edo bere ganic ſorarazten baitu Seme bat, ceina baita harequin higoal gauça gucietan.

G. *Cergatic erraiten duçu*, Aita bothere gucia duena baithan?

I. Cerenezbaita deufic harc ecin deçaquenic.

G. *Semeac eta Ifpiritu Sainduac ezdute bothere gucia Aitac beçain ungui?*

I. Bai, hirur prefuna hec ezdure bothere bat bera baicic.

G. *Cergatic dioçu bada bereciqui Aita dela bothere gucia duena?*

I. Ceren, nola hura baita berce bi prefunen principioa, hei communicatcen baitiote bothere gucia Jnincozco naturarequin edo Jaincotafenarequin batean.

G. *Cer erran nahi dira hitz hauc*, Ceruaren eta lurraren Creatçailean?

I. Erran nahi dute, Jaincoac Ceruan eta lurrean creatu eta ez deufetaric eguin dituela gauça guciac.

---

## HAMAÇAZPI-GARREN LECCIONEA.

### Credoaren feduida.

G. E*Rraçu Credoaren bi-garren articulua?*

I. *Eta Jefu-Chrifto haren Seme bakhar gure Jauna baithan.*

G. *Cer aditcen duçu hitz hautaz*, Eta Jefu-Chrifto, &c.

I. Aditcen dut eta finheften Jefu-Chrifto dela Jaincoaren Seme guiçon eguina.

G. *Cergatic dioçu*, Haren Seme Bakharra?

I. Ceren hura baicen ezbatta nihor ſorthu Aita ganic.

G. *Cergatic deitcen duçu* gure Jauna?

I. Ceren barc creatu eta eroſi baicaitu.

G. *Cer erran nahi dira hitz hauc*, Cein concebitu baicen Iſpiritu Sainduaren berthutez?

I. Hitz horiec erran nahi dute, Iſpiritu Sainduac eguin eta formatu çuela Jaincoaren, Semearen gorphutz ſacratua Ama Birginaren odol garbienetic.

G. *Cer aditcen duçu hitz hautaz*, Sorthucen Maria Birgina ganic?

I. Aditcen dut Maria deitcen cen Birgina batec concebitu çuela eta eman mundura bera bethi Birgina gueldircen celaric.

---

## Hemeçorci-garren Leccionea.

### Credoaren ſeguida.

G. C*Er erran nahi dira hitz hauc*; Pairatu çuen Poncia Pilatuſen manuaren azpian?

I. Erran nahi dute Jeſu-Chriſto gure Jauna içan dela injurioz bethea, eta Gurutce bati lothua Poncio Pilatus deitcen cen Judeaco Gobernadore batec manatcen çuen denboran.

G. *Cer erran nahi da*, hil cen?

I. Erran nahi da haren Arima ican cela haren gorphutcetic ſeparatua edo berecia.

G. *Cer erran nahi da*, Ehorſi çuten ?

I. Hura hil cenean haren gorghutça içan cela ehorcia eta thomba batean eçarria.

G. *Cer erran nahi da*, jautſi cen Iſernuetara ?

I. Erran nahi da haren Arima jautſi cela Limboetara, ceinac Eſcritura Sainduan deituhac baitire *Iſernuac*.

G. *Cer aditcen duçu Limboez ?*

I. Limboac dire lekhu bat, ceinetan mundua creatuz gueroz hil ciren Juſtuen Arimac baitceuden Jeſu-Chriſto ethor cedin beira, hare Cerurat eramaiteco.

G. *Cer erran nahi dire hits hauc*; hirur-garren eguneau jaiqui cen biciric hilen artetic ?

I. Hil cenetic hirur garren eguneau thombatic ilki cela gloriaz bethea.

G. *Cer erran nahi da*, igan cen Ceruetara ?

I. Jeſu-Chriſto gure Jauna alchatu cela bere bertutez eta botherez eruetaco lekhuric gorenera.

---

HENERETCI-GARREN LECCIONEA.

Creoaren ſeguida.

G. CEr *erran nahi dire hitz hauc*, jarria dago Jainco Aita bothere-drenaren eſcuincan ?

I. Erran nahi dira, Jeſu-Chriſto gure Jauna Jainco beçala bere Aitarequin bigoal dela botherez eta gloriaz.

G. *Cer erran nahi dire erainō bitz horiec?*

I. Erran nahi dire Jesu-Christo gure Jauna guiçon beçala creatura gucien gainetic alchatua dela Ceruan bere gloriaren eta botherearen handitasunaz.

G. *Cer erran nahi dire bitz hauc*; handic ethorrico da bicien eta hilen jujatcera?

I. Erran nahi dire munduaren akhabançan Jesu-Christo aguerrian jautsico dela Cerutic guiçon eta emaztequi gucien jujatcera.

G. *Cer irakhasten darocu articulu hunec*; finhesten dut Ispiritu Saindua baithan?

I. Irakhasten darocu Trinitate Sainduan badela hirur-garren presuna bat Ispiritu Saindua deitcen dena.

G. *Ispiritu Sainduaz cer sinhexi behar dugu?*

I. Hura Jainco dela Aita eta Semea beçala.

G. *Cer sinhesten ducu berce bitz hautaz*: Eliça Catholica Saindua?

I. Sinhesten dut eztela Eliça chol bat baicic ceina baita Elica Catholicoa, Apostolicoa, eta Romanoa.

---

## HOGOI-GARREN LECCIONEA.

### Credoaren seguida.

G. CErgatic dioçu *Eliça* Saindua *dela?*

I. Lehenbicicoric, ceren Jesu-Christo Eliçaren buruçagui agueri eztena baita saindu-

tasun guciaren ithurria, Bigarrenecoric, ceren haren dotrina edo leguea eta Sacramenduac Sainduac baitire. Hirur-garrenecoric, ceren ezbaita Sainduric Eliça Ama Sainduaren bilcujan eta batasunean baicic.

G. *Cer erran nahi da Eliça* Catholicoa *dela ?*

I. Erran nahi da, gucietacoa dela, ceren hedatcen baita denbora gucietara eta lekhu gucietara.

G. *Cer aditcen duçu* Sainduen partaliertasunaz ?

I. Aditcen dut Eliçac dituen Arimaco ontasun guciac comun direla fedea duten guciençat, anaja beçala eta gorphutz bereco, ceina baita Eliça, parte eta miembro beçala.

G. *Cein dire arimaco ontasun hec ?*

I. Hec dire Jesu-Christo gure Jaunaren merecimenduac, eta munduan diren eta içatu diren justu gucienac.

G. *Cer erran nahi da*, bekhatuen barkhamendua ?

I. Erran nahi da, Jesu-Christo gure Jaunac nac eman dioela bere Eliçari bekhatu suerte gucien barkatceco botherea eta indarra.

G. *Cer aditcen duçu* haraguiaren phizteaz ?

I. Aditcen dut mundua hasiz gueroztic hilac içanen diren guiçon eta emaztequi guciac egun batez phiztuco direla.

G. *Cer erran nahi dire azqueneco hitz hauc, bethiere iraunem duen bicitcea ?*

I. Erran nahi da, phiztu ondoan içanen dugula

bicitce bat behinere akhabatuco eztena.

G. *Nolacoa içanen da seculan akhabatuco esten bicitce hurre?*

I. Hura içanen da bicitce bat eternitate gucicotz: Dohaxua onençat, eta eternitate gucicotz dohacabea gaichtoençat.

---

## BI-GARREN PARTEA.

### Guiriſtinotaſuneco eguinbidez.

G. C*Ein dire Guiriſtinotaſuneco eguinbide principalac?*

I. Gaizquiari ihez eguitea, eta unguiaren egnitea.

G. *Cer eguin bear du gaizquiari ihes eguiteco eta unguiaren eguiteco?*

I. Beguiratu behar dire Jaincoaren eta Eliça Ama Sainduaren Manamenduac.

G. *Cenbat dire Jaincoaren Manamenduac?*

I. Badire hamar.

G. *Erratçu, cein dire?*

I. 1. Jainco bat dela ſinhexiric, hura bera gauça gucien gainetic onhets, adora eta cerbitça deçagulo.

2. Arneguric, cinic, edo juramenturic banoqui eta premia gabe ezdaquigula.

3. Igandeac beguira eta ſantifica detçagula.

4. Gueure buraſoac, eta aitcineco çaharrac ohora detçagula.

5. Nihor hil, ez dira ezdeçagula.

6. Haraguizco obraric ezconçaz campoan gogoz ez obraz ezdaguigula.
7. Deus ebats, ez bercerena iduc ezdeçagula.
8. Lekhucotasun falsoric, eta gueçurric erran ezdeçagula.
9. Berceren Senharric edo Emazteric desira ezdeçagula.
10. Lagunaren ontasunari gaizqui guticia ezgaquizcola.

*EDO BESUTAN JAINCOAREN.*
*Manamendu Sainduac dire hauc.*

1. JAinco bat adora eçaçu,
halaber maita ossoqui.
2. Juramenturic çuc eztuçu,
Ez cinic eguinen banoqui.
3. Igandeac beguira çatçu,
Jauna ere cerbitça debotqui.
4. Aita eta Ama ohora çatçu,
bici çaitecin lucequin.
5. Nihor obraz hilen eztuçu,
ez borondatez gaichtoqui.
6. Paillardiça eguinen eztuçu
obraz ez gogoz likhitsqui.
7. Bercenera ebatsico eztuçu,
ez goardatuco injustuqui.
8. Lekhucotasunic eztaçu,
ez hitça erranen falsoqui.
9. Berceren Esposic eztuçu
desiratuco liçunqui.
10. Guticia içanen eztuçu

berceren onaren gaizqui.

G. *Cenbat gauçatara daronsate Jaincoaren hamar Manamendu Sainduec ?*

I. Bi-gauçatara, ceinac baitire Jaincoaren eta lagunaren maitatcea.

---

## Bi-garren Leccionea.

### Jaincoaren lehenbicico Manamenduaz.

G. *ERraçu Jaincoaren lehenbicico Manamendua ?*

I. Jainco bat dela sinhexiric, hura bera gauça gucien gainetic onhets, adora, eta cerbitça deçagula : *Edo bercela bersuian ?* Jainco bat adora eçaçu, halaber maita ossoqui.

G. *Cer manatcen du Jaincoac lehenbicico manamendu hortaz ?*

I. Manatcen darocu hura choilqui bakhara adora deçagula, eta gauça gucien gainetic maita deçagula.

G. *Cer da Jaincoaren adoratcea ?*

I. Jaincoaren adoratcea da hari gure Jaun soberanoari beçala çor diogun ohorea ikharcea eta bihurcea.

G. *Obligatuac gara Jaincoaren adoracera ?*

I. Bai, Jaincoaren adoratcea eguinbide eta obligacione bat dugu haguitz handia eta hersia.

G. *Noiz behar laiteque berecìqui Jaincoa adoratu ?*

I. Goicean jeiqui eta berehala ; arraxean ohe-

racoan, Igandetan, Bestetan, Eliçan sarcean, &c.

G. *Jesu-Christo gure Jauna ere adoratu behar dugu?*

I. Bai, ceren Jainco baita.

G. *Eguiçu Adoracionezco Acta bat.*

I. Ene Jaincoa, adoratcen çaitut, eta eçagutcen caitut ene Creatçailearençat, eta ene Jaun soberanoarençat.

---

## LEHENBICICO.

### Manamenduaren seguida.

G. *LEhenbicico Manamenduac debeca cen darocu Aingueruac eta Sainduac ohoratcea?*

I. Ez, ceren hei bihurcen eta errendatcen diotegun ohoreac ezbaitio bidegaberic eguiten, eta ezbaitu batere gutitcen Jaincoari errendatcen eta ekharcen dioguna.

G. *Nola ohoratcen ditugu Sainduac?*

I. Jaincoaren cerbitçariac eta adisquideac beçala.

G. *Adoratu behar dugu Ama Birgina Sainduа?*

I. Ez, estugu nihor adoratu behar Jaincoa bera baicic.

G. *Eztugu behar Andre dena Maria ohoratu Aingueruac eta Sainduac baino guehiago?*

I. Bai, ceren den Jaincoaren Ama, eta ceren

duen hain dignitate eta saindutasun handia eta miragarria.

G. *Ama Birgina Sainduaren ondoan, cein Saindu behar ditugu berèciqui ohoraitu?*

I. Gure Aingueru Goardianoac, gure Patroin Sainduac, gure herrietaco Partoinac, &c.

G. *Certan erakhutsi behar dugu berecìqui Birgina Sainduari eta berce Sainduei behurcen diotegun ohorea?*

I. Hec bere berthutetan imitatcean, eta gure beharretan eta escasietan hequin lagunça galdeguitean.

G. *Ezdeitçaquegugue halaber ohora Sainduen Erlequiac?*

I. Bai, ceren hec baitire Ispiritu Sainduaren templua içatu den gorphutz baten hondar preciatuac.

G. *Ezditugu behar ohoratu lekhu Sainduac, nola baitire Caperac, Hilerriac?*

I. Bai, ceren hec baitire consecratuac cerbitçu edo emplegu Saindu batçuetacotz.

G. *Ezlaiteque idolatria bat Jesu-Christoren Birgina Sainduaren, eta Sainduen Imaginac ohoratcea?*

I. Ez, ceren ezbaitire hec ohoratcen hetan seinalatuac edo errepresentatuac diren Sainduac gatic baicen.

G. *Othoitz eguin deçoqueguте Sainduen Imaginei?*

I. Ez, hori laiteque superstiçione bat.

G. *Cergatic*

*G. Cergatic jarçen gara bada helharrico hequin aitcinean?*

I. Ceren imagina hequin bidez ohoratcen baititugu hec orhoit arazten gaituzten Sainduac.

## LEHENBICICO.

### Manumenduaren seguida.

*G. CEin da Jaincoaren lehenbicico Manamenduac manatcen darocun bigarren gauça?*

I. Hura da; Jaincoa ossoqui eta perfetqui onhesta eta maitatcea.

*G. Cer eguin behar da Jaincoa perfetqui maitatceco?*

I. Maitatu bear dugu gauça gucien gainetic.

*G. Nola maita deçaquegu Jaincoa gauça gucien gainetic?*

I. Gure lan, eguindura, eta accione guciac haren placera gatic eguinez, eta hari damu edo ofensaric eguin deçoqueten gauça guciei ihes eguinez.

*G. Noiz eguin behar guinituzque Jaincoaren amodiozco Actac?*

I. Goicean, arraxean, eta ahalic maicena.

*G. Eguiçu Jaincoaren amodiozco Acta bat?*

I. Ene Jaincoa, maite çaitut neure bihotz guciaz gauça gucien gainetic, ceren çu baitçara ossoqui maitagarria eta ahala perfeta.

G. *Cer debecatcen darocu Jaincoaren lehenbi-cico Manamendu hunec?*

I. Debecatcen darocu creatuaren alderateco amodio itsu eta soberaniazco gucia.

---

## HIRUR-GARREN LECCIONEA.

### Jaincoaren bi-garren Manamenduaz.

G. E*Rraçu Jaincoaren bi-garren Mana-mendua?*

I. Arneguric, cinic, edo juramenturic banoqui eta premia gabe eztaguigula.

G. *Jaincoac cer debetatcen du bi-garren Ma-namendu hortaz?*

I. Debecatcen du juramenturic banoqui eguitea.

G. *Cer da juramentu eguitea?*

I. Hura da lekhucotçat harcea Jaincoa edo cen-bait creatura, aitcinatcen dugun gauçaren edo solasaren gainean.

G. *Cer da juramentua banoqui eguitea?*

I. Hura da necesitateric, beharric, edo premia-ric gabe juramentu eguitea.

G. *Berce premiaric gabe juramentu eragui-ten diotenec ezdute bekhaturic eguiten?*

I. Bai, bekhatu eguiten dute.

G. *Jaincoac cer manatcen darocu Manamen-du huntaz?*

I. Lehenbicicoric, Jaincoaren icen Sainduaren çat errespetu handi bat içaitea; bigarrene

coric, eguin ditugun botuen complitcea.

G. *Car da botua?*

I. Botua da Jaincoari emaiten diogun promes bat, ceinaz obligatcen baicara cenbait obra onen eguitera Jaincoaren edo cenbait Sainduaren ohoretan.

G. *Jaincoaren gogaraco gançabat da botuen eguitea?*

I. Bai, bainan eztire botuac arinqui eguin behar.

---

## LAUR-GARREN LECCIONEA.

### Jaincoaren hirur-garren Manamenduaz.

G. *CEin da Jaincoaren hirur-garren Manamendua?*

I. Igandeac beguira eta santifica detçagula.

G. *Manamendu huntan cer manatcen çaicu?*

I. Manatcen çaicu Igandeac sainduqui iragan detçagula.

G. *Cer eguin behar da Igandeac sainduqui iraganteco?*

I. Egun hura iragan eta emplegatu behar da Jaincoaren cerbitçuan, nekhaçale lanic eguin gabe.

G. *Cer eguin behar da egun hura Jaincoaren cerbitçuac emplegatceco?*

I. Meça ossoqui bat ençun behar da Eliçaco Officio dibinoetan causitu, eta gaineraco denboran obra onen eguinten hari.

G. *Cer aditcen duçu ogun hartan eguin behar eztiren nekhaçale lanic?*

I. Aditcen tut bereciqui nekhaçalec bere biciaren irabafteco eguiten dituzten efcu lanac.

G. *Ceri guehienic ihes eguin behar ҫajoegun hartan?*

I. Bekhatuari, eta bekhatu eraguin ahal deçaqueguten gauça guciei.

---

## BORZ-GARREN LECCIONEA.

### Jaincoaren laur-garren Manamenduaz.

G. *ERraçu Jaincoaren laur-garren Manamendua?*

I. Gueure burafoac, eta aitcineco çaharrac ohora detçagula.

G. *Manamendu hunec cer manatcen darocu?*

I. Manatcen darocu maita detçagula gure burafoac, eta errefpetu ikhar deçotegula.

G. *Cer manatcen darecu craino?*

I. Gure burafoac obedi eta bere beharretan lagun detçagula.

G. *Manamendu hunec eztarocu manatcen gure burafoac baicic nihor ohoratcea?*

I. Bai, manatcen darocu ohoro detçagula eta obedi gure Eliçaco aitcindariac eta berce betuçaguiac.

G. *Cer errecompenfa edo fari Jaincoac efcaini diote Manamendu hau beguiratcen dutenei?*

I. Cicitce luce eta dohaxu bat mundu huntan baldin conbeni bada, eta bicitce dohaxuago bat berceau.

G. *Cer dakharque oraino Manamendu hunec?*

I. Huntan sarthuac dire burasoen eguin bideac bere haurren alderat, eta Nausien eta etcheco Andrenac bere sehien alderat.

G. *Cein direz sehien eguinbide pricipalas bere Nausien eta Etcheco Andren alderateotz?*

I. Obligatuac dire hequin errespetatcera eta obeditcera.

G. *Certara dire oraino obligatuac?*

I. Lehenbicicoric, hequin ontasunaren conserbatcera, berea balute beçala. Bigarrenecoric, etchean ikhusten edo aditcen dutenic behinere ez erraitera.

G. *Cein dire Nausien eta etcheco Andren eguinbide principalac bere schien alderat?*

I. Lehenbicicoric, çor diote bere soldata. Bigarrenecoric, corregitur behar tuzte, eta exemplu ona eman behar diote.

G. *Cenbat maneraz Nausiec bekhatu eguiten dute bere sehiem alderateco eguinbidetan?*

I. Laur maneraz. 1. Hec Catichimara ibil arazteco artha ez içanez, eta hec Sacramenduetara hurbil araci gabez.

2. Igandetan eta Bestetan hec trabailla araciz egun Saindu hetan cilhegui eztiren lanetan.

3. Hec bere eritasunetan abandonaturz eta ez laguntuz.

4. Hei bere soldata guelditsuz.

## Sei-garren Leccionea.

### Jaincoaren borz-garren Manamenduaz.

G. *Cein da Jaincoaren borz-garren Manamendua?*

I. Nihor hil, & desira ezteçagula.

G. *Cer debecatcen darocu Manamendu hunec?*

I. Debecatcen darocu guere autoritatez edo botherez gueure lagunaren baiciari aspercea.

G. *Eztu deus beceric debecatcen?*

I. Bai debecatcen du aldeguciz gure lagunari gaizqui eguiteco cogoa eta chedea.

G. *Certan eguin daquioque lagunari goizquia?*

I. Bere gorphutcean, edo bere Ariman.

G. *Nola eguiten çajo gaizqui bere gorphutcean?*

I. Colpe emanic, colpaturic, edo hilic.

G. *Nola eguiten çajo gaizqui bere Ariman?*

I. Conseilu gaichtoz eta exemplu gaichtoz.

G. *Cer eguin behar du bere lagunari conseilu gaichto cenbait eman dioenac?*

I. Berehala hartaric haina guibelatu behar du.

G. *Borz-garren Manamenduac eztu deus berceric debecatcen?*

I. Bai, debecatcen ditu colera edo hasarretcea, herra, mendecua, injurioac, calumnioa, eta medisencia.

G. *Certara da obligatua bere lagunari gaizqui, edo bidegabe eguin dicena?*

I. Bere ahal gucian hari eguin dioen bidegabe-guciaren erreparatcera.

---

## Çazpi-garren Leccionea.

### Jaincoaren ſei-garren Manamenduaz.

G. *ERraçu Jaincoaren ſei-garren Manamendua?*

I. Haraguizco obraric ezconçaz compoan gogoz ez obraz eztaguigula.

G. *Cer debecatcen du ſei-garren Manamenduac?*

I. Debecatcen tu lohiqueriaco bekhatu guciac; eta hartara doronſaten gauçac edo hei okhaſione emaiten diotenac.

G. *Cenbat guiſaz eguitenda bekhatu Manamendu hunen contra?*

I. Hirurez, gogoz, hitcez, eta accionez edo obraz.

G. *Cein dire gogoz bekhatu eguiten dutenac?*

I. Hec dire gogocta liçunac, edo deſireunde eta guticia gaichtoac gogoan bere nahicara atchiquitcen dituztenac.

G. *Cein dire hitcez bekhatu eguiten dutenac?*

I. Hec dire hitz ahalquegabeac, liçunac, eta biſenſutacoac erraiten dituztenac.

G. *Cein dire accionez edo obrac bekhatu eguiten dutenac?*

I. Hec dira behatce, edo uquitce, edo berce cebait accione liçun eta desonhest bere gainean edo berce norbaiten gainean eguiten dutenac.

G. *Manamendu hunec eztu debecatcen lohiqueria haicic ?*

I. Bai, debecatcen tu oraino hartara daronsaten gauça guciac, hala nola sobra edatea eta jatea, ahalquegabien edo libertinen hantatcea, biluzqui edo modestia gabe beztitua ibilcea, &c.

G. *Cein da Manamendu hunec guehienic manatcenarecun berthutea ?*

I. Hura da Castitatea.

G. *Cer da Castitatea ?*

I. Castitatea da berthute bat axeguin de sonhest eta liçunetaric urruncen gaituena.

G. *Guiristino guciac obligatuac dire exeguin liçun eta desonhest gucien biguincera ?*

I. Bai, guciac hartarat obligatuac dira.

G. *Cergatic dire hartarat obligatuac ?*

I. Ceren diren guciac Jesu-Christoren miembroac, eta Ispiritu Sainduaren Templuac.

---

## CORCI-GARREN LECCIONEA.

### Jaincoaren çazpi-garren Manamenduaz.

G. *CEin da Jaincoaren çazpi-garren Manamendua ?*

I. Deus ebats, edo bercerena iduc ezteçaguila.

G. *Cer debecatcen du Manamendu hunec?*

I. Debacatcen du lagunaren ontaſuna injuſtuqu harcea.

G. *Cer debecatcen du oraino?*

I. Debecatcen du oraino lagunaren ontaſuna iduquitcea harc nahi gaberic edo haren borondatearen contra.

G. *Cenbat guiſatara harcen da maicenic bercercen ontaſuna?*

I. Borz guiſatara.

G. *Cein guiſa da lehena?*

I. Hura da bercerena portchaz harcea, hala eguiten dute ohoinec.

G. *Cein da bi-garren guiſa?*

I. Hara da bercerena fineciaz harcea, hala eguiten dute ſehiec, etchetiarrec, eta berce ichilic ebaſten dutenec.

G. *Cein da hirur-garren manera?*

I. Hura da bercerena harcea maleciaz eta tromperiaz, hala eguiten dute ſalcen duten marchandicetan trompatcen eta enganatcen dutenec.

G. *Cein da laur-garren manera?*

I. Hura da bercerenaz jabetcea, hala eguiten dute hauci makhurrac eta çucen contraco compenſacioneac bata bercearençat eguiten dituztenec.

G. *Cein da borz-garren manera?*

I. Hura da preſtamu cilhegui eztirenetaric irabacia edo probetchua harcea, uſurariocc edo lucurericc eguiten duten beçaladitua intre-

ſean edo bahicunçan atchiquis, &c.

G. *Cembat maneraz atchic daitequé çucen contra berceren ontaſuna?*

I. Iduquitcen da bercerena principalqui lauguiſatara.

G. *Erraçu lehena?*

I. Hura da hartu duguna ez bihurcea.

G. *Erraçu bi-garrena?*

I. Hurra da çor eguinac ez pagatcea.

G. *Cein da hirur-garrena?*

I. Hura da languilei edo ſehiei bere ſaria ez emaitea.

G. *Laur-garrena?*

I. Hura da çor çajotenei detchuma ez pagatcea.

G. *Aſqui da coſeſatcean erraitea berceren ontaſuna hartu dugula?*

I. Ez, ahalic laſterrena bihurtu behar da bercerena, edo ecin deçaquenac behar du ican bihurceco gogo eta chede eguiazco bat.

G. *Cazpi-garren Manamenduaren complitceco aſqui da berceren ontaſuna ez harcea?*

I. Ez, bat bederac eman behar diote oraino bere ontaſunetic probei bere indarren arabera.

---

BEDERATCI-GARREN LECCIONEA.

Jaincoaren çorci-garren Manamenduaz.

G. *ERraçu Jaincoaren çorci-garren Manamendua?*

I. Lekhucotasun falsoric, eta gueçurric erran ez-teçagula.

G. *Cer debecatcen du Manamendu hunec?*

I. Debecatçen tu bereciqui hirur gauça.

G. *Cein dire?*

I. 1. Gueçurra: 2. Lekhucotasun falsoa: 3. Jujamendu arina edo temerarioa.

G. *Cer da gueçurra erraitea?*

I. Hura da gogoan duenaren contra minçatcea.

G. *Bada denboraric edo okhasioneric gueçurra erraitea cilhegui denic?*

I. Ez, gueçurra erraitea ezta behinere cilhegui.

G. *Cer da Lekucotasun falsoa?*

I. Hura da justiciara lekhuco deithua denean, an eguia ez erraitea.

G. *Lekhucotasun falsoa erran duena certara da obligatua?*

I. Haren lekhucotasun falsoac lagunari eguin dioten bidegabe guciaren erreparatcera.

G. *Cer da Jujamendu arina edo temerarioa?*

I. Hura da bere lagunaz funsic gabe gaizqui jujatcea.

---

HAMAR-GARREN LECCIONEA.

Jaincoaren bederatçi-garren eta hamar-garren Manamenduez.

G. *CEin da bederatci-garren Manamendua?*

I. Becerén senharric, edo emazteric desira ez-teçagula.

G. *Cer debecatcen du Manamendu hunec?*

I. Debecatcen tu desira liçun eta desonhest guciac.

G. *Cein da hamar-garren Manamendua?*

I. Lagunaren ontasunari guticia ezgaquizcola.

G. *Cer debecatcen du hamar-garren Manamenduac?*

I. Debecatcen ditu bercerẽn ontasuna çucen contra içaiteco guticia eta desira guciaç.

G. *Cer da bercerẽn ontasunari çucen contra guticiatcea?*

I. Hura da harren bidegabetan ontasun hura nahi içaitea.

G. *Manamendu hunec eztu debecatcen berceren ontasunaren guticia baicic?*

I. Bai, debecatcen du halaber bat bederac bere ontasunarençat duen amodio itsua eta soberaniazcoa.

---

## Hameca-garren Leccionea.

Eliça Ama Sainduaren Manamenduez.

G. S*albatua içaiteco asqui da Jaincaren Manamenduen beguiratcea?*

I. Ez, behar dire berce alde beguiratu Eliça Ama Sainduaren Manamenduac.

G. *Cenbat dire Eliça Sainduaren Manamenduac?*

I. Badire sei.

G. *Errat çu?*

I. 1. Igandetan eta beſtetan Meça oſſoa ençun deçagula.

2. Manamenduzco beſtac beguira eta ſantifica detçagula.

3. Gure bekhatu guciac urthean behin bederen deren cofeſa detçagula

4. Bazcoz bedere Gorphuts ſaindua humilqui errecibi deçagula.

5. Garthac, bigiliac, eta gariçuma eſſoqui barur detçagula.

6. Orcilaretan eta larunbateran haraguiric jan eztteçagula.

## *E D O BERCELABERSUTAN ELIC. A Ama Sainduaren Manamenduac dire hauc.*

1. Meça Saindua entçun eçaçu
Beſta, Igandetan berotqui.

2. Eta beſtac beguira çatçu
manamenduzcoac ſainduqui.

3. Bekhatuac confeſa çatçu
urthean behin oſſoqui.

4. Gorphutz ſaindua errecibi çatçu
Bazcoz bedere humilqui.

5. Gartha bigiliac barur çatçu,
gariçuma ere oſſoqui.

6. Orcilarean janen eztuçu.
ez larunbatean haragui.

G. *Obligatuac gara Manamendu hauquin gucien beguiratcera?*

I. Bai, hartarat obligatuac gara bekhatu eguiteco penaren azpian.

G. *Eliça Ama sainduac cer penaz punitcen tu haren manamendu sainduac beguiratcen ezdituztenac, eta aguerrian haren contra alchatcen direnac?*

I. Bere gorphutcetic khencen tu, eta hori deitcen da escumicua.

G. *Certara obligatcen gaitu Eliçaren lehenbicico manamenduac?*

I. Obligatcen gaitu Meça saindua osſoa eta debotqui ençutera igandetan eta beſtetan.

G. *Asqui da Meça ençutea igandetan eta beſtetan?*

I. Ez, ediren behar gara oraino Eliçaco oficio sainduetan, eta guiriſtinoei emaiten çaizten inſtruccionetan.

G. *Certara obligatcen gaitu Eliçaren bigarren manamenduac?*

I. Obligatcen gaitu manamenduzco baſten sainduqui iragaitera eta paſatcera.

G. *Nola iragan behar dire beſtac sainduqui?*

I. Lehenbicicoric; Nekhaçale lanic eguin gabe. Bigarrenecoric; egun saindu hec Jaincoaren cerbitçuan iraganez, eta obra onac eguinez.

# ELIÇA AMA SAINDUAREN

## Manamenduen seguida.

G. *ELiça sainduac cer manatcen du hirurgarren Manamenduaz ?*

I. Gure bekhatu guciac urthean behin bedere cofesatcea, behar diren dispoficionequin.

G. *Cein denboraz behar da cofesatu ?*

I. Bazco denboran.

G. *Haurrec cer adinetan behar dute confesatu ?*

I. Jaincoa bekhatu mortal batez ofensatceco gai direnean.

G. *Certara obligatcen gaitu Eliçaco laurgarren manamenduac ?*

I. Adimenduaren adina ardietsi duten guiristino guciac obligatcen tu urthea behin bedere Bazcoz behar diren dispoficionequin gorphutz saindua errecibitcera.

G. *Non eguin behar da communione saindu hura ?*

I. Bat bedera dagoen herrian, baldin ezbadu bercetan errecibitceco permissionea aitcindarien edo superioren ganic.

G. *Haurrec cer adinetan behar dute gorphutz saindua errecibitu ?*

I. Bere Arçainec edo aitcindariec hartaco gai causitcen dituztenean.

G. *Cer manatcen du borz-garren manamenduac ?*

I. Bartur gaitecila gariçuman, gartha denboretan; eta Eliçac manatcen duen besta bespe-retan.

G. *Certara obligatcen gaitu Eliçaren sei-garren manamenduac?*

I. Orcilaretan, larunbatetan, eta Eliçac manatcen duen berce egunetan urinic eta haraguiric ez jatera.

---

HAMABI-GARREN LECCIONEA.

Bekhatuez generalqui.

G. C*Er da Bekhatua?*

I. Bekhatua da Jaincoaren leguearī ez obeditcea.

G. *Cenbat bekhatu suerte dira?*

I. Badire bi suerte, originala, eta actuala.

G. *Cer da bekhatu originala?*

I. Hura da bekhatu bat, ceinarequin concebitcen baicara, eta ceinaz gure lehenbicico Aita Adamec eguin baicaitu faltaduri Jaincoari ez obediteeaz.

G. *Cer da bekhatu Actuala?*

I. Hura da gueroc gure nahitara eguiten duguna adimendura beldu garen ondoan.

G. *Cenbat guisatara eguiten da bekhatu actuala?*

I. Laur guisatara, gogoz, hitcez, accionez edo obraz, eta hutz eguinez edo omisionez.

G. *Cer erran nahi da, hutz eguinez edo omisionez?*

I. Erran nahi da eguin behar guineana, edo eguin ahal gueneçaquena ez eguinez.

G. *Cenbat bekhatu actual suerte dire?*

I. Badire bi suerte; bekhatu mortala, eta beniala.

G. *Cer da bekhatu mortala?*

I. Hura da bekhatu bat, ceinac gàl arazten baitarocu Jaincoaren gracia saindutceen gaituena, eta merecci arazten baitarocu secülaco infernua.

G. *Bekhatua noizda mortala?*

I. Noiz ere materia handia baita, eta borondate osso eta perfet batequin eguiten baitugu.

G. *Cer da bekhatu beniala?*

I. Hura da bekhatu bat, ceinac gal araztez eztarocularic arrren Jaincoaren gracia saindutcen gaituena, halaric ere hozten eta flacatceen baitu gure baithan gracia hura, eta merecci arazten baitarozquigu denbora batetaco penac.

G. *Noiz ezta bekhatua benial baicic?*

I. Noiz ere materia clumca baita, edo ezbaitugu gure consentimendua ossoqui emaiten.

## HAMAHIRUR-GARREN LECCIONEA.

Bekbatu capitalez edo buruçaguiez.

G. *Cembat dire bekhatu capitalac?*

I. Badire çazpi, ceinac baitire, orguilua, abaricioa, luxurioa edo lohiqueria, inbidia, gormandiça, colera edo harredura, eta alferqueria.

G. *Cergatic bekhatu horiec deitcen tutçu buruçaguiac?*

I. Ceren horiec baitire berce bekhatu gucien ithurriac eta ethorquiac.

G. *Cer da orguilua?*

I. Orguilua da bat bederac bere burnatençat duen amodio soberaniazcoa, ceinac emaitenbaitio bere baithan fidancia, eta berceac baino guchiago bere burua atchic arazten baitio eta estimarazten.

G. *Cer da Abaricioa?*

I. Abaricioa da mundu huntaco ontasunençat eta bereciqui diruarençat dugun amodio soberaniazcoa eta esteeamendua.

G. *Cer da luxurioa edo lohiqueria?*

I. Hura da castitatearen contraco axeguinençat içaiten den lehia, guticia, edo amodio itsua eta gucen contracoa.

G. *Bekhatu berreçu beguiraçeco bandia bekar dugu içan?*

I. Bai, ceren horrec galcen eta corrumpitcen baicaitu gorphutcean eta ariman.

G. *Cer da inbidia?*

I. Inbidia da gure lagunaren ontasunaz damu içaitea, harenac gurea gutitcen balu beçala.

G. *Cer da gormandiça?*

I. Gormandiça eta edateco eta jateco guticia eta lehia sobratua.

G. *Cein da gormandiça maiceniac eguiten dena eta perilosena?*

I. Hura da horditcea.

G. *Cein dire horditqueriaren seguida ikharagarriuna?*

I. Hec dire adimenduaren tontodura, bruitac phiztea, eta lohiqueria edo luxurioa.

G. *Cer da colera?*

I. Hura da arimaren bicitasun handi bat, ceinac lehiarazten baicaitu mendecatcera berece eguin darozquiguten injurioez, gaizquiez, eta bidegabez.

G. *Cer da alferqueria?*

I. Alferqueria da Jaincoaren gaucençat eta gure eguinbidençat dugun higuinça edo naguitasun bat.

---

HAMALAUR-GARREN LECCIONEA.

Berthutez.

G. *CEr da Guiristinotasuneco berthutea?*

I. Hura da unguiaren eguiteco ahala eta

errachtasuna, ceina ardiesten baitagu Jaincoaren graciaz.

G. *Cerbat Guiristinotasuneco berthute suerte dire?*

I. Badire bi suerte; berthute moralac, eta berthute theologalac.

G. *Cerbat dire berthute moralac?*

I. Badire hainitz, hala nola prudencia, justicia, temperancia, dulcetasuna edo emetasuna, humilitatea, modestia, eta horrelaco berce hainitz.

G. *Berthute horiec cergatic deitcen tutçu Moralac?*

I. Ceren hec baitira gure accionen erreguelac.

G. *Cerbat dire berthute theologalac?*

I. Badire hirur; fedea, esperança, eta caritatea.

G. *Cergatic deitcen dire theologalac?*

I. Ceren hec Jaincoari berari uquitcen baitçaizco.

G. *Esplica eta cheha çaçu guchiago errepuesta hori?*

I. Fedea uquitcen çajo Jaincoari eguia soberanoari beçala: Esperança, gure azquen finari eta gure dohaxutasun soberanoari beçala: Caritatea, içaite perfetenari eta gure amodioa guchienic mereci duenari beçala.

G. *Cer da Fedea?*

I. Fedea da berthute bat, ceinaren bidez cinez eta fermuqui sinhesten baititugu Jaincoac berere Eliçari erakutsi(?) gut araci diozcan gauça guciac.

G. *Eguiçu fedezco Acta bat?*

I. Ene Jaincoa, ſinheſten ditut cinez eta fermuqui Eliça ſinheſten eta irakhaſten dituen gauça guciac, ceren çuc hari irakhatſiac baitiçe; eguidaçu othoi gracia ſinheſte hortan bicitceco eta hilceco.

G. *Cer da Eſperança?*

I. Eſperança da berthute bat, ceinaren bidez uſte baitugu içanen dugula mundu huntan Jaincoaren gracia, eta bercean Parabiſua Jeſu-Chriſtoren merecimenduen berthutez.

G. *Eguiçu Eſperançazco Acta bat?*

I. Ene Jaincoa, Eſperança dut Jeſu-Chriſto gure Jaunaren merecimenduen berthutez emanen darotaçula egun batez çure Parabiſuco gloria ſaindua, eta mundu huntan harat hedatceco behar ditudan gracia guciac, ceren çuc aguindu baitarozquiguteçu, eta çu baitçara guçiz ona eta çure hitçaren archiquitcera lejala

---

## Hamaborz-garren Leccionea.

### Caritateaz.

G. *Cer da Caritatea?*

I. Caritatea da berthute bat, ceinaren bidez maite baitugu Jaincoa bere amoreac gatic gauça guciac baino guchiago, eta gure laguna guere buruac beçala Jaincoaren amoreac gatic.

G. *Nola behar da Jaincoa maitatu?*

I. Gure bihotz guciaz, gure arima guciaz, eta gure indar guciaz.

G. *Nola behar dugu maitatu gure laguna?*

I. Maitatu behar dugu guere buruac maite ditugun beçala.

G. *Cer da laguna maitatcea guere buruac maitatcen tugun beçala?*

I. Hari desiratcea, eta içan araztea gure eguin ahalean guretçat nahi guinituzquen beçalaco on eta ungui berac.

G. *Gure etsaien maitatcera ere obligatuac gara?*

I. Bai, Jesu-Christo gure Jaunac eguin du hartaz Evangelio sainduan berariazco manamendu bat.

G. *Eguzcu caritatezco Acta bat?*

I. Ene Jaincoa maite çaitut ene bihotz guciaz eta gauça gucien gainetic, ceren çu baiçara guciz maitagarria eta ahala perfeta; maite dut halaber ene laguna nere burua beçala çure amorecat gatic.

G. *Obligatuac gara fedezco Acta, esperançazcoac, eta caritatezcoac eguitera?*

I. Bai, hartarat obligatuac gara, eta eguin behar ditugu ahalic maicena.

# HAMASEI-GARREN LECCIONEA.

## Religioneaz.

G. C*Er da Religionea?*

I. Hura da berthute bat, ceinaren bidez Jaincoari errendatcen eta bihurcen baitiogu gucien gaineco ohore bat, haren handitasun soberainoa dela causa.

G. *Ceindire Religionaren contraco bekhatuac?*

I. ~~Supersticionea, eta Religione~~ gabetasuna.

G. *Cer da supersticionez bekhatu eguitea?*

I. Hura da Jaincoari errendatcea eta bihurcea haren gogaraco ezten ohore bat, edo bihurcea creatura choil bati Jaincoari baicic çor etçajoen ohore bat.

G. *Ceindire supersticione suerte principalac?*

I. Badire hirur: ohore gaindizcoa, edo gaizqui aditua, Idolatria, eta Magia edo Aztitasuna.

G. *Cer da ohore gaindizcoa?*

I. Hura da Jaincoa ohoratu nahi içaitea pratica edo obra banoez eta alferrez, edo Eliça Ama saindua aprobatcen ezdituenez.

G. *Cer da Idolatria?*

I. Hura da Jaincoari baicic choilqui çor etçajon ohorea creaturei bihurcea.

G. *Cer da Magia, edo Aztitasuna?*

I. Hura da Deabrua lagun deithuric edo hare-

quin patu eguinic Magicien-ec edo aztiec haren ganic içaiten duten bothere eta indar estraimio bat.

G. *Cer da Religione gabetasuna?*

I. Hura da bekhatu bat, ceinaz desohoratcen baita Jaincoa bere baithan, edo harençat confecratuac diren gaucetan.

G. *Cein dire bekhatu hau guehienic eguiten dutenac?*

I. Hec dire Blasfematçaileac, eta Sacrilegio ac eguiten dituztenac.

---

## HIRUR-GARREN PARTEA.

### Guiristinotasuneco eguinbideac ungui eguiteco bidez edo mojanez.

### LEHENBICICO LECCIONEA.

### Jaincoaren graciaz.

G. *CEin dire guiristinotasuneco eguinbiden ungui eguiteco bideac eta majorac?*

I. Badire hirur: 1. Jaincoaren gracia. 2. Sacramenduac. 3. Othoitça.

G. *Cer da Jaincoaren geancia?*

I. Hura da geineticaco dohain bat, ceina Jaincoac emaiten baitarocu gucíz ona içanez, eta Jesu-Christo gure Jaunaren merecimenduez gure salbamenduaren eguiteco.

G, *Çenbat*

G. *Cenbat gracia suerte dire?*

I. Badire bi suerte, gracia habituala, eta gracia actuala.

G. *Cer da gracia habituala?*

I. Hura da gaineticaco dohain bat, ceinat saindutcen baicaitu gure baitharatcen den beretic, eta eguiten baicaitu Jaincoaren gogaraco.

G. *Gratia hau gal deçaquegu?*

I. Bai, galcen dugu bekhatu mortal batez.

G. *Cer da gracia actuala?*

I. Hura da Jaincoac emaiten darocun barneco laguinça bat unguiaren eguiteco eta gaizquiari ihes eguiteco.

G. *Nola ardiets ahal deçaquegu gracia hau?*

I. Othoitcez Jaincoari galdetuz, eta Sacramendua maiz errecibituz.

G. *Jaincoaren gracia gabe othoitcic eguin deçaquegu?*

I. Ez, Jaincoaren gracia atçarcen gaitu othoitz eguitera, eta othoitçac ardiesten darozquigu berce gracia berriac.

---

## BI-GARREN LECCIONEA.

### Sacramenduez generalqui.

G. *CEr da Sacramendua?*

I. Sacramendua da ecin ikhus daitequen gracia baten seinale agueri dena, Jesu-Christo gure Jaunac ordenatuac gure arimen garbitceco eta graciaz bethetceco.

G. *Cergatie dioçu Sacramendua dela seinale bat?*
I. Ceren harc eçagut araztén baitarocu ecin ikhus daitequen gracia bat, berac gure arimetura ikharcen darocuna.
G. *Cergatic diçu seinale hura agueri dela?*
I. Ceren gure sensuez eçagutcen baita, hala da ura bathajoan.
G. *Sacramenduec nondic dute gure arimen garbitceco eta graciaz bethetceco berthutea?*
I. Jesu-Christo gure Jaunaren passionetic eta heriotcetic.
G. *Sacramenduec ezdarecute deus berceric; emaiten gratia baicic?*
I. Badire hirur Sacramendu ceinec emaiten eta eçarcen baitarocute caractera; hec dire Bathajoa, Confirmacionea, eta Ordena.
G. *Cer da Caractera?*
I. Caractera da seinale Ispiritual bat gure ariman eçarria; seculan khenduco eztena.
G. *Caractera eçarcen duten Sacramenduac har daitezque bietan?*
I. Ez, ecin hec errecibi daitezque gurec bician behin baicic.
G. *Cenbat Sacramendu dire?*
I. Badire çazpi Sacramendu; 1. Bathajoa. 2. Confirmacionea. 3. Gorphutz saindua. 4. Penitencia. 5. Anuncioa. 6. Ordena; eta 7. Ezconça.

## HIRUR-GARREN LECCIONEA.

### Sacramenduez bat banazca Bathajoaz.

G. *CEr da Bathajoa?*
I. Bathajoa da Sacramendu bat, ceinac barkhatcen baitarocu bekhatu originala, eta eguiten baicaitu guiriſtino, eta Jaincoaren eta Eliçaren umc.
G. *Bathajoac ezin barkhatcen bekhatu originala baicic?*
I. Bai, barkhatcen tu bekhatu-ſuerte guciac.
G. *Ez da nihor Apheçac baicic bathaja ahal-decaquenic?*
I. Bai, behar orduan guciec bathaja deçaquete, hala guiçonquiec nola emaztequiec.
G. *Bathajatceco cer eguin behar da?*
I. Ur naturala eta hutſa iſuri behar da bathajatu behar denaren burura, erraiten delaric denbora berean: *Bathajatcen çaitut Aitaren, eta Semearen, eta Ispiritu Sainduaren icenean*: eta behar da içan Eliçac eguiten duenaren eguiteco chedeo eta intencionea.
G. *Certara obligatcen gaitu Bathajoac?*
I. Jeſu-Chriſto baithan ſinheſtera, eta deabruari, haren pompei eta obrei errenunciatcera.
G. *Cer da deabruari errenunciatcea?*
I. Hura da aguerian eta ſolemnelqui declaratcea deabruaren bānda uzten eta abandonatcen

dugula, Jesu - Christoren legue sainduaren azpian jarceco.

G. *Cer aditcençu deçu deabruaren pompez?*

I. Aditcen tut munduco maximac eta banitateac.

G. *Cein dire deabruaren obrac?*

I. Bekhatu suertu guciac.

---

## LAUR-GARREN LECCIONEA.

### Confirmacioneaz.

G. C*Er da Confirmacionea?*

I. Confirmacionea da Sacramendu bar, ceinac emaiten baitarocu Ispiritu sainduа bere dohainequi, eta gure biciaren arriscutan bada ere Jesu-Christoren fedearen atchiquitceco eta cofesatceco graciarequin.

G. *Cergatic deitcen duçu Sacramendu hac* Confirmationea?

I. Ceren hunec confirmatcen eta borthizten baicaitu bathajoan errecibitu dugun fedean, eta eguiten baicaitu guiristino perfet.

G. *Cergatic dioçu Confirmacioneac eguiten gaituela guiristino perfet?*

I. Ceren harc eguiten baicaitu fedean borthitçago, eta emaiten baitarocu animo eta curage guehiago.

G. *Salbatua içaitecoz necessario Confirmacioneco Sacramendua errecibitcea?*

I. Ez, bainan hura errecibitu gabe laçoqui egoiten direnec Jaincoa ofensatcen dute, eta Sacramendu harc emaiten dituen graciez gabetuac guelditcen dire.

G. *Cer disposicioner quin errecibitu behar da Sacramendu hau?*

I. Behar da içan graciazco estatuan, eta jaquin behar dire fedezco misterio principalac.

G. *Cer eguin leçaque Confirmacioneco Sacramendua bekhatu mortaleco estatuan errecibi leç iquenac?*

I. Eguin leçaque Sacrilegio bat, eta ezleçaque errecibi Ispiritu saindua.

G. *Confirmacioneco Sacramendua bekin errecibitu duenac bigarrenean errecibi deçaque?*

I. Ez, ceren Sacramendu hunec emaiten baitu caractera, eta hau behin baino guehiagotan errecibitcen duenac eguiten du Sacrilegio bat.

G. *Cer eguin behar da Confirmacionea errecibitu baino lehen?*

I. Cofesatu behar da, baldin eçagutcen badu bekhatu mortal cenbait eguin duela.

G. *Confirmacionea errecibitu duenaren obligacioneac eta eguinbideac cein dire?*

I. Hec dire Jesu-Christo gure Jaunaren fedea ahalqueric gabe atchiquitcea, eta haren Evangelio sainduco maximen seguitcea.

## GAUÇA BERAREN SEGUIDA.

### Confirmacionearen errecibitceco behar diren dispositione hurbilenez.

G. *Cer eguin behar da confirmatcera dohan demboran ?*

I. Hirur gauça. 1. Joan behar da Jaun Aphezpicuaren aitcinera arropa modestequin, eta han belhaurincatu behar da, baldin berac bercela macatcen ezbadu.

2, Beguiac iduqui behar dire behcitituac, burua chuchen, eta copeta agueria.

3. Oihalezco banda bat atchiqui behar da escuetan.

G. *Dispoficione horiec guciac gorphutcecoac dire, cein dire arimacoac ?*

I. Badire laur. 1. Sacramendu harc emaiten duen Ispiritu sainduaren errecibitceco desira eta guticia handi baten içaitera ensejatu behar da.

2. Eguin behar dire fedezco Actac, bereciqui Sacramendu hunen eguiaren eta hunen effetuen edo seguiden gainean.

3. Eguin behar dire humilitatezco Actac, eçaguteen duguiaric ezgarela gai edo digne Sacramendu hunen errecibitceco.

4. Eguin behar dire Ispiritu sainduaren ganatceco amodiozco Actac, harc nahi duenaz gueroz ethorri gure gana.

*G. Certaric beguiratu behar da confirmaturic heldu dena?*

I. Eztu escuez uquitu behar copeta, bainan iguriqui behar du Jaun Aphezpicua laguncen duten Aphezetaric batec chucatu dioen artean, edo copetan oibal cherrenda bat eman deçoquen artean.

*G. Cer eguin behar da Sacramendua hau errecibitu den ondoan?*

I. Laur gauça. 1. Bere lekhutic aldaratu behar da, eta belhaurinco jarriric Jaincoari esquerrac eman eguid darocun graciaz.

2. Hartu behar da gogo eta borondate on bat, ethorquiçunerat Evangelioco maximen seguitceco, munduco genden trufez, mesprecioez; eta persecucionez acholaric içan gabe.

3. Galdeguin behar çajo Ispiritu sainduari othoi conserba deçala gue errecibitu dugun gracia, eta lehenago hil ere gaitecin hura seculan galduco dugun baino.

4. Ezta ilkhi behar Eliçatic Jaun Aphezpicuac Ceremonia gucia akhabatu eta azquenean erraiten diren othoitçat erran dituzquen artean,

# GAUÇA BERAREN SEGUIDA.

## Confirmacioneco Sacramenduaren Ceremoniez.

G. NOrc du *Confirmacioneco Sacramenduaren emaiteco indarra?*

I. Jaun Aphezpicuac dute.

G. *Jaun Aphezpicuac Confirmacionea emaitean eguiten dituen ceremoniac cein dire?*

I. 1. Erraiten tu othoitz hainitz.

2. Confirmatcen dituenei escuac buruaren gainean eçarcen diozcate.

3. Confirmatcen dituenen copeta gurutcearen seinalean gançutcen du Crisma sainduaz.

4. Confirmatu dituenean emaiten diote capartaco chume bana.

G. *Jaun Aphezpicuac cergatic erraiten tu othoitz hec?*

I. Confirmatcera dohanem gana Ispiritu sainduа jauts arazteco.

G. *Cergatic escuac buru gainean eçarcen diozcate?*

I. Erakhustera emaiteco, Sacramendu hau behar den beçala errecibitcen dutenen arimara heldu dela Ispiritu sainduа.

G. *Cer da confirmatuac gançutcen diren Crisma sainduа?*

I. Hura da olibazco olioa balsamoarequin na-

haſtatua, Jaun Aphezpicuac orcegun ſaindukiz conſecratua.

G. *Confirmatcean cer erakhuſtera emaiten du olioac?*

I. Nola olioac baitu hedatceco edo banatceco eta indarren emaiteco berthutea, hura da Iſpiritu ſainduaren graciac duen abundanciaren eta indarraren ſeinalea.

G. *Cer erran nahi du balſamoac?*

I. Hura da bere uſain ona gatic confirmàtua den guiriſtinoac eman behar duen exemplu onaren ſeinalea.

G. *Jaun Aphezpicuac cergatic eguiten du co̅petan gançutuz gurutcearen ſeinalea?*

I. Erakhuſtera emaiteco confirmatua denac eztuela behar ahalcatu Jeſu-Chriſto guratcefīcatuaren fedea eta maximac atchiquitceaz eta ſoſtengatceaz.

G. *Cer erran nahi da Jaun Aphezpicuac confirmatu duenari emaiten dioen çapartacoa?*

I. Harc erakhuſtera emaiten du, confirmatua den guiriſtino bat preſt egon behar dela afruntu, pena eta nahigabe gucien ſofritcera Jeſu-Chriſto gatic.

---

## BORZ-GARREN LECCIONEA.

### Gorphutz ſainduaz.

G. C*Er da Gorphutz ſainduaren Sacramendua?*

I. Gorphutz saindua da Sacramendu bat, ceinetan edireiten baita egiazqui eta erréalqui Jesu-Christo gure Jaunaren gorphutça, odola, Arima, eta Jaincotasuna oguiaren eta maliax arnoaren idurien edo itchuren azpian.

G. *Cer aditcen da ç oguiaran eta malbax arnoaren iduriez edo itchurez?*

I. Hec dire gure sensuetan agueri direnac; nola baitire, oguiaren eta arnoaren colorea, figura, eta gostua.

G. *Consecracionearen ondoan ezta guehiago gueldicen oguiric eta arnoric?*

I. Ez: Ogui gucia itçulceen eta aldatceen da Jesu-Christoren gorphutcera, eta arno gucia haren odolera.

G. *Nola eguiten da itçulce eta mudança hori?*

I. Consecracioneco hitcen berthute miragarriaz eta guciz puchantaz.

G. *Ezta gorphutça baicic oguiaren iduriaren azpian, eta odola baicic arnoaren iduriaren azpian?*

I. Bai, Jesu-Christo gucia ossoa da hala oguiaren nola arnoaren iduri bakhotcharen azpian, eta halaber gucia ossoa da nahiz oguiaren nahiz arnoaren iduriaren parteric chumeneren den bakhotchean.

G. *Ostia saindua hausten denean, hausten da Jesu Christo gure Jaunaren gorphutça?*

I. Ez, ezta hausten oguiren iduria baicic.

Gorphutz Sainduaren seguida.

G. *JEsu-Christo gure Jauna certaco da Aldarereco Sacramendu Sainduan ?*

I. Bere Aita Jaincoari bere burua Sacrificiotan ofritceco.

G. *Ezta han bere Aita Jaincoari Sacrificiotan ofritua içaiteco baicic ?*

I. Bai, han da oraino gure Arimen janhari içaiteco Communione Sainduan.

G. *Jesu-Christo gure Jaunac noiz eguin eta ordenatu çuen gorphutz Sainduaren Sacramendua ?*

I. Orcegun Sainduz, bere Passionearen bezperan.

G. *Non eguiten da Sacramendu Saindu hau ?*

I. Aldarcaten gainean Meça Saindua erraitean.

G. *Cer da Meça ?*

I. Meça da Jesu-Christoren gorphutçaren eta odolaren Sacrificio odol isuriric gabea, Aphecac Jaincoari ofritcen dioena oguiaren eta arnoaren idurien azpian.

G. *Beraz Gorphutz saindua Sacramendu bat da, eta Sacrificio bat ?*

I. Bai, bada bat eta bercea ; Sacrificio da ; ceren Jesu-Christo han ofritcen baita ; eta Sacramendua da, ceren guc hartan parte degun eta hura errecibitcen dugun.

G. *Meçaco Sacrificioa bercelacoa da eta diferenta guruitceco Sacrificioric ?*

I. Ez, victima edo oſtia bera da Jaincoari ofriteen çajoena hala gurutcearen gainean, nola aldarearen gainean: eztute diferenciaric haren ofritceco maneran baicic.

G. *Cerda diferencia hura?*

I. Gurutcearen gainean victima edo oſtia ofritua içan da odol iſuriarequin, eta aldarearen gainean ofriteen da odol iſuririegabe.

---

GORPHUTZ SAINDUAREN SEGUIDA.

Comunione Sainduaz.

G. CEr da Comunionea?

I. Comunionea da Gorphutz ſainduaren Sacramendua errecibitcea.

G. *Gorphutz ſaindua ungui eta dignequi errecibitceco behar dituguṅ diſpoſicioneac cein dira?*

I. Badire bi ſuerte, batçuec arimari uquiteen çaizconac, eta berceac gorphutcecoac.

G. *Cein dire Arimaco diſpoſicioneac?*

I. Badire hirur.

G. *Cein da lehena?*

I. Lehena da bere concienciaren frogatcea eta examinatcea, eta baldin bekhatuan bada, penitenciaco Sacramenduaren errecibitcea.

G. *Aſqui da bekhatu mortalic bere baitan ez eçagutcea?*

I. Ez, içan behar da oraino bekhatu benialaren

laren afeccioneric edo amodioric gabe.

G. *Cer erran nahi-da bekhatu benialaren amodioric gabe içaitea?*

I. Hura da chede eta borondate içaitea bekhatu benialic batere bere nahitaraez eguiteco.

G. *Cein da Arimaco bi-garren disposicionea?*

I. Hura da mahain saindura hurbilcea fede bici batequin, esperança cin eta fermu batequin, eta caritate bero batequin.

G. *Cein da hirur-garrena?*

I. Hura da Gorphutz Sainduaren errecibitcea humilitasunezco, adoracionezco, eta eçagutçazco sentimendu handi batequin.

G. *Cein dire gorphutceco disposicioneac?*

I. Badire hirur principalac.

G. *Cein da lehena?*

I. Hura da barur gaitcetaric içaitea, erran nahi da gauherdiz gueroz jan edo edan gabea, baldin Sacramendu hau biatico beçala harcen ezbada.

G. *Cein da bi-garrena?*

I. Hura da arropa propiac eta modestac içaitea, Jesu-Christo errecibitcera goaninari çor diogun errespetu handia gatic.

G. *Cein da hirur-garrena?*

I. Hura da modestia eta errespetu ahalic handiena bere baithan erakhustea.

G. *Cer da Comuniene indigne edo gaichto baten eguitea?*

I. Hura da bekhatu mortalcco estatuan comuniatcea.

G. *Comunione indigne baten eguitea bekhatu handia da?*

I. Bai, ecen hura da bere jujamendnaren eta condemnacionearen jatea eta edatea, eta sacrilegio icigarri baten eguitea.

---

## GAUÇA BERAREN SEGUIDA.

### Cer eguin behar den communiatceracoan, eta comuniatcean berean.

G. *CEin dire Comunione sainduaren aitcincan eguin behar diren Actac?*

I. Badire borz principalac, ceinac bartire; lehena fedezco Acta. 2. Humilitatezco Acta. 3. Contricionezco Acta. 4. Amodiozco Acta: eta. 5. Desircundezco Acta.

G. *Nola eguiten duçu fedezco Acta bat comunionearen aitcinean?*

I. Jesu-Christo ene Salbatçaile maitea, gorphutceco boguiez ikusten banu baino fermuquiago sinhesten dut çu ceroni çarela nic errecibituco çaitudana Aldareco Sacramendu sainduа arrecibitcean.

G. *Nola eguiten duçu humilitatezco Acta?*

I. Ene Jaincoa, eznaiz batere digne çu sar çaitecin ene baithan, bainan erraçu choilqui hitz bat, eta ene Arima içanen da sendatu: bere miseria gucietaric, çure baithan dut en esperança gucia eçarria.

G. *Nola eguiten duçu contricionezco Acta?*

I. Ene Jaincoa, barkhamendu esque nagotçu humilqui ene bekhatu guciez, damu dut eta urriqui çure amoreac gatic ceren guciz ona çarelaric ofensatu çaitudan, eta harcen dut borondate fermu bat ez guehiago bekhataric eguiteco çure graciarequin batean.

G. *Nola eguiten duçu amodiozco Acta?*

I. Ene Jaincoa, maite çaitut ene bihotz guciaz, eta munduan maiteren ditudan gauça gucien gainetic.

G. *Nola eguiten duçu desircundezco Acta?*

I. Cato, ene Jesus dibinoa, çato ene bihotcera, libra çaçu ene bihotça gaitz gucietaric, bethe çaçu çure dohainez eta çure graciez, çure errecibitceco desira eta guticia handi batiquin dago.

G. *Comuniatceracoan nola atchiqui behar da burua?*

I. Atchiqui behar da gueldiric eta chuchen, aitcinatu edo guibelatu gabe, eta higuitu gabe.

G. *Nola behar dire beguiac iduqui?*

I. Ezta behatu behar baterat eta bercerat, eta ez beguiac atchiqui Apheça ganat harmatuac, bainan iduqui behar dire modestqui beheititzuac, edo Ostia saindua ganat itçuliac.

G. *Nola behar da idequi ahoa?*

I. Ez sobra, ez gutiegui.

G. *Nola iduqui behar da mihia?*

I. Azpico ezpainaren gainerat aitcinatuchea.

G. *Ostia saindua errecibitu denean cer eguin behar da bartaz?*

I. Utci behar da aphur bat mihiaren gainean, eta guero heçatu denean iretsi behar da errespetu handi batequin.

G. *Baldin Ostia saindua aho gangari lotcen balitçaio cer eguin behar laiteque?*

I. Behar laiteque handic emequitto mihiaz khendu, erhiez uquitu gabe.

G. *Comuniatcean nola behar da atchiqui dasaila?*

I. Hedatu behar da halaco guisaz non baldin Ostia saindua Apheçaren escuetaric erorcen baliz, ezbailiteque erori behar arropen gainera eta ez lurrera, bainan bai dasailaren gainera.

G. *Comuniatceco aitcinean edo ondoan ezpainac chucatu behar dire dasailaz?*

I. Ez, hura ezta conbeni ez ungui, eta ezta hala eguin behar.

---

## Gauça beraren Seguida.

Cer eguin behar den comuniatu ondoa.

G. *CEr eguin behar da comuniatu den ondoan?*

I. Joan behar da bazter batetara, eta han ego behar da oren laurden bat bederen Jaincoa esquerren emaiten.

G. *Cer eguin behar da bizquitarte hartan?*

I. Lehenbicicoric, adoratu behar da humilqui Jesu-Christo errecibituric heldu harena.

Bi-garrenecoric, erakhustera eman behar diogu hura gure baithan içaiteaz dugun bozcarioa.

Hirur-garrenecoric, esquer handiac eman behar diozcagu, ceren ethorri den gure gana, garelaric arren hain deus gutiac.

Laur-garrenecoric, galdetu behar diozcagu behar ditugun gracia guciac.

G. *Cer erran behar da comuniatu dutenean bere hala Eliçatic ilkhitcen direnez?*

I. Bere debocione escasiaz arriscutan jarcen direla bere comunione saindutic probetchuric gabe guelditceco.

G. *Asqui da Jaincoari esquerren emaiten oren laurden bat egoitea?*

I. Ez behar da oraino gaineraco egun gucia iragan eta pasatu ahalic sainduquiena.

---

## GAUÇA BERAREN SEGUIDA.

### Lehenbicico Comunioneaz.

G. *LEhenbicico comunionearen equiteco artha handirequin preparatu behar da?*

I. Bai, çeren hura baita accione bat haguitz importanta.

G. *Cergatic hala?*

I. Ceren hura baita dohaxutasunezco ithurri

bat, baldin ungui eguiten bada, eta dohacabetasunezco bat, baiđin gaizqui eguiten bada.

G. *Cer eguin behar da bere lehenbicico Communionea ungui eguiteco?*

I. Behar da muga onez hartara preparatu.

G. *Cer eguin behar da hartara preparatceco?*

I. Behar da, lehenbicicoric, eta, eraman lehen baino bicitce saindu ago bat.

Bigarrenecoric; hutsi eguin gabe bethi ibili behar da Catichimara, jaquin behar diren gauçac han ikhastera.

Hirur-garrenecoric; othoitz onez, eta obra onac maiz eguinez hartara disposatu behar da.

G. *Urtheco cein denboraz da conbeni lehenbicico comunionearen eguitea?*

I. Bazco bestetan.

G. *Non eguin behar da lehenbicico Comunionea?*

I. Bere herrico Eliça nausian.

G. *Jaun Errotoraren permisionea gabe eguin behar da?*

I. Ez, ceren hari baitagoco jujatcea nor den hartaco gai edo capable.

---

## SEI-GARREN LECCIONEA.

### Penitenciaco Sacramenduaz.

G. CEr da Penitenciaco Sacramendua?

I. Penitencia da Sacramendu bat, ceinac barkhatcen baititu bathajatuz gueroz eguin ditugun bekhatuac.

G. *Cenbat parte dire Penitenciaco Sacramenduan?*

I. Badire hirur parte, Contricionea, Confesioa, eta Satisfaccionea.

G. *Cer da Contricionea?*

I. Contricionea da bere bekhatuen damu eta urriqui bat, guehiago bekhaturic ez eguiteco borondate fermu eta chede cinezco batequin.

G. *Cer da borondate fermua edo chede cina?*

I. Hura da ez guehiago bekhaturic eguiteco gogo on, eta eguiazco borondate bat.

G. *Borondate fermu eta chede cinezco baren içaitea necessario da?*

I. Bai, hura gabe ezta eguiazco conbersioneric, eta ez bekhatuen barkhamenduric.

G. *Certan eçagutcen da borondate eta chede fermu hura?*

I. Bicitcea aldatcen denean, eta bekhatuaren okhasionei ihes eguiteco içaiten den artha hendian.

G. *Cenbat condicione behar tu içan Contricione on batec?*

I. Behar tu laur. Içan behar da, lehenbicicoric, Surnaturala edo Ceruticacoa. Bigarrenecoric, Barnecoa. Hirur-garrenecoric, Generala. Laur-garrenecoric, Soberanoa edo gucien gainecoa.

G. *Cer da Contricione Surnaturala edo Ceuticacoa?*

I. Hura da bekhatuaz dugun dolorea, damua,

eta urruquia, Ispiritu sainduaren mobimendu batetic, eta fedeac irakhasten daracun chede batetic heldu çaicuna, eta ez natralecazco mobimenbutic edo chedetic heldu dena.

G. *Cer da barneco Contricionea?*

I. Hura da bekhatuaren damu bat ez choilqui idurizcoa edo itchurazcoa eta ezpainetacoa, bainan bihotçaren erditic heldu dena.

G. *Cer da Contricione generala?*

I. Hura da damu bat, eguin ditugun bekhatu gucietara hedatcen dena.

G. *Bekhatu benialic baicic eguin eztuena hetaz cofesa daiteque contricioneric gabe?*

I. Ez, hetaz ere behar da içan contricionea, berçela Sacrilegio bat eguin laiteque; hobe ere da orduan eta conbeni da cofesatcea berce cenbait bekhatu lehen cofesatuetaric, eta hartaz içaitea contricione on bat.

G. *Cer da Contricione Soberanoa edo gucien gainecoa?*

I. Hura da damu bat, ceinac higuin arazted baitarocu bekhatua gaitz suerte guciac baino guehiago.

G. *Cenbat Contricione dire?*

I. Badire bi suerte, Contricione perfeta, eta Contricione imperfeta, ceina deitcen baita bercela Atricionea.

G. *Cer da Contricione perfeta?*

I. Hura da damu bat ceren ofensatu dugun

Jaincoa, ceren hura baita guciz ona.

G. *Cer da Contricione imperfeta edo* Atriciona?

I. Hura damubat ceren Jaincoa ofensatu dugun, ceina emaiten baitarocu ordinariozqui bekhatua cein itsusia den consideratceat, edo eternitateco penen beldurrac.

G. *Cer condicione içan behar tu Contricione imperfetac?*

I. Içan behar tu bi condicione, lehen esplicatu direnez berce alde.

G. *Cein dire hec?*

I. Lehenbicicoric, içan behar da bekhaturic eguiteco borondateric gabe.

Bigarrenccoric, behar da içan barkhamenduaren esperança, eta Jaincoa maitatcen hasi behar da justiciaren guciaren beçala.

---

## Cazpi-garren Leccionea.

### Cofesioaz.

G. C*Er da Cofesioa?*

I. Cofesioa da Aphez aprohatu bati bere bekhatu guciac erraitea eta declaraccea, hequin Absolucionea haren ganic errecibitceco.

G. *Cein dire Cofesione on baten eguiteco necessario diren conditioneac?*

I. Badire borz.

G. *Cein da lehena?*

I. Lehena da bere concienciaren examinatcea.

G. *Cein da bigarrena?*

I. Bigarrena da Jaincoa ceren ofenſatu dugun damu handi bat içaitea.

G. *Cein da hirur-garrena?*

I. Hirur-garren da gure bekhatu guciac Aphez aprobatu bati cofeſatcea.

G. *Cein da Laur-garrena?*

I. Laur-garrena da ez guehiago bekhaturic eguitecco chede cin eta fermu baten harcea.

G. *Cein da borz-garrena?*

I. Borz-garren da Jaincoari eta gure lagunari ſatisfatcecco borondate eta deliberacione eguiazco baten harcea.

G. *Obligatuac gara gure bekhatu gucien declaratcera?*

I. Bai, eta bekhatu mortal bat choilqui gordetcen duenac ſacrilegio bat eguiten du.

G. *Eta bekhatu bat mortala ohe den dudan dagoena haren erraitera obligatua da?*

I. Bai, ceren Cofeſorac hura jujatu behar baitu.

G. *Cembeit bekhatu bere nahiz cofeſioan gordeluquena certara laiteque obligatua?*

I. Bere cofeſionearen berriz haſtera, eta bericiqui bere bekhatu haren eſtalceaz eguin luquen crimaz edo bekhatu handiaz accuſatcera.

## CORCI-GARREN LECCIONEA.

### Satisfaccioneaz.

G. *CEr da Satisfaccionea?*

I. Hura da Jaincoari eta gure lagunari eguiten diogun erreparacione bat hari eguin diogun injurioaz.

G. *Cofesioneon bat eguitecotz obligatuac gara, eta liberatuac içaitera Jaincoari eta lagunari satisfatcera?*

I. Bai, eta hori gabe ezdugu errecibitcen absolucioneric edo barkhamenduric.

G. *Ordean absolucionea içan dugun ondoan, eta bekhatuac barkhatu çaizquigun ondoan, obligatuac gara oraino satisfatcera?*

I. Bai, ceren bekhatuari çor citçajoen eternitateco pena aldatua baita denbora batetaco penara, ceina sofritu behar baitugu mundu huntan edo berecean.

G. *Nola satisfatcen çajo Jaincoari pena horrençat?*

I. Penitentiazco obrez, ceinac compliteen baititugu Jesu-Christoren graciarequin, ceinaz choilqui satisfa eta merecimendu izan ahal baiteçaquegu.

G. *Cein dire obra hec?*

I. Hec dire bereciqui Cofesorac penitenciatçat emaiten darozquigunac, hala nola othoitçac, barurac, eta amoinac.

G. *Asqui da Jaincoari satisfatcea?*

I. Ez, behar dugu halaber lagunari satisfatu, baldin ofensatu badugu.

G. *Nola satisfatcen çajo lagunari?*

I. Hari bere presunan, bere ohorean, edo bere ontasunetan eguin diogun bidegabea erreparaturic.

---

## BEDERATCI-GARREN LECCIONEA

### Cofesatceco maneraz.

G. C*Er eguin behar dugu Cofesoraren oinetan garenean?*

I. Lehenic ceinatu behar gara. Bigarrenecoric, erran behar dugu, *Aita benedica naçaçu ceren eguin baitut bekhatu.* Hirur-garrenecotic, erran behar dugu *Confiteor, meâ culpâ* raino, hura campoan utciric. Laur-garrenecoric, erran behar tugu gure bekhatu guciac, penaric guehien eguiten dutenetaric hasiz, beguira egon gabe noiz Apheçac interrogatuco gaituen.

G. *Cer eguin behar da ondoan?*

I. Lehenic akhabatu behar da *Confiteor.*

Bi-garrenecoric, aditu behar dire atencione eta artha handi batequin Cofesoraren abisuac.

Hirur-garrenecoric, errecibitu behar da absolutionea humiltasun handi batequin.

G. *Cer*

G. *Cer eguin behar da baldin Cofesorac errefusatcen badu Absolucionea?*

I. Obeditu behar da, haren jujamenduaren azpian jarri behar da, eta harc erraiten duena eguin.

G. *Cer eguin behar da Cofesorac Absolucionea emaiten duen denboran?*

I. Orduan behar dire berriz higuindu bere bekhatuac contricionezco Acta bar eguinic, eta juntatu behar gaizco Jesu-Christori, harc Olibetaco baratcean gure bekhatuez içatu çuen dolorean.

G. *Eguiçu contricionezco Acta bat.*

I. Ene Jaincoa, barkhamendu esque nagorçu humilqui ene bekhatu guciez, damu dut eta urriqui çure amoreac gatic, ceren guciz ona çarelaric ofensatu çaitudan, eta harcen dut borondate fermu bat ez guchiago bekhaturic eguiteco çure graciarequin bathean; halaber harcen dut borondate nere bekhatu guciez ossoqui cofesatceco, eta emanen çaitan penitenciaren complitceco.

G. *Cer eguin behar da Cofesoraren oinetaric ilkhi ondoan?*

I. Lehenic, Jaincoari esquerrac eman behar diozcagu errecibitu dugun graciaz.

Bi-garrenecoric, gogoan erabili behar tugu Cofesoraren abisuac, eta hequin seguitceco deliberacionea hartu.

Hirur-garrenecoric, harc eman darocun peni-

tencia ahalic lafterrena eguín. behar dugu. Laur-garrenecoric, baldin Abfolucionea berce aldi bateraino luçatu badarocu, behar dugu haren gana bihurtu harc feinalatu eta marcatu duen egunean.

---

## Hamar-garren Leccionea.

### Indulgenciez.

G. *CEr da Indulgencia?*

I. Indulgencia da Penitenciaco Sacramenduac barkhatu dituen bekhatuei cor eitçajoten denbora batetaco penen barkhamendua.

G. *Norc du Indulgencien emaiteco indarra edo podorea?*

I. Indar hura badu gure Aita Sainduac Eliça gucian, eta Jaun Aphezpicuec badute bere Diocefetan.

G. *Noren ganic dute indar hura?*

I. Jefu-Chrifto gure Jauna ganic, ceinac eman baitio bothere hura bere Eliçari, eta Eliça baliatu da indar hartaz Apoftoluen denboratic orainocoan.

G. *Indulgenciec nola barkhatcen dute bekhatuei cor cajoten pena?*

I. Jefu-Chriftoren merecimendu guciz handiac eta infinituac, eta Sainduen fatisfaccione abundantac guri aplicatuz.

G. *Cer eguin behar da Indulgencien irabaziteco ?*

I. Içan behar da eguiazco penitent, eta lejalqui complitu behar dire Indulgencia emaiten duenac manatcen dituen condicione guciac.

G. *Indulgencia irabaci duena dispensatua da penitencia eguiteric ?*

I. Ez, penitencia eguin behar dugu gure bici gucian.

---

## Hameca-garren Leccionea.

### Anuncioaz, eta Ordenaz.

G. **C***Er da Anuncioa ?*

I. Anuncioa da Sacramendu bat eriei Arimaco eta gorphutceco behar dituzten lagunça gucien emaiteco ordenatua.

G. *Cer disposicionetan errecibitu behar da Anuncioa ?*

I. Cofesatu behar da baldin bekhatu mortalean bada.

G. *Ordean ecin cofesa daitequenac cer eguin behar du ?*

I. Behar du içan cofesatceco guticia eta desira, eta eguin behar du contricionezco Acta bat.

G. *Sacramendu hunen errecibic eco egon behar da extremitateraino edo ossoqui ethsi arteraino ?*

I. Ez asqui da hilceco arriscuarequin eri içaitean.

## ORDENAZ.

G. *CEr da Ordena ?*

I. COrdena da Sacramendu bat, ceinae Eliça guiçonei emaiten baitiote bothere eta indar Eliçaco eguinbiden eguiteco, eta hequin ungui eta fainduqui eguiteco gracia.

G. *Nondic heldu da bothere edo indar hori ?*

I. Heldu da Jesu-Christo gure Jauna ganic.

G. *Cer disposicionerequin errecibitu behar da Sacramendu hau ?*

I. Behar da içan graciazco estatuan, eta içan Jaincoac hartara deithua.

---

HAMABI-GARREN LECCIONEA.

## Ezconçaz.

G. *CEr da Ezconçaco Sacramendua ?*

I. CEzconça da Sacramendu bat, ceinac santificatcen baitu guiçonaren eta emaztearen arteco societate edo battasun çucena eta legitimoa, eta hei emaitaten baitiore gracia bere haurren hazteco eta alchateco Jaincoaren beldurtasunean.

G. *Cer disposicionerequin errecibitu behar da Sacramendu hau ?*

I. Behar da içan graciazco estatuan.

G. *Cer eguin behar da orairo ?*

I. Errecibitu behar da Sacramendu hau mode

tia handi batequin, ahalquegabetasun gucietaric beguiraturic.

G. *Non errecibitu behar da Ezconçaco Sacramendua?*

I. Bere herrian eta bere Errotora ganic, edo harc bere partez hartaco eçarri duen Aphez baten ganic.

G. *Cein dire presuna ezconduen obligacioneac?*

I. Badire borz. 1. Elkharrequin baquean eta batasun saindu batean bicitcea.

2. Batac bercearen narrioac, hutsac, eta humoreac patienciarequin sofritcea.

3. Batac berceari ezconçaco fedea lejalqui beguirracea.

4. Bere beharretan batac bercea laguncea.

5. Bere haurrac Jaincoaren beldurtasunean alchatcea.

G. *Birginatasuneco eta Albarguntasuneco estatua ezta hobea ezconçcea baino?*

I. Bai, hartan sainduqui bicitceco harcodenean.

G. *Cein behar da bada bietaric hautatu?*

I. Jaincoac ceintara deitcen gaituen ikhusiric, hura hautatu bear da.

## HAMAHIRUR-GARREN LECCIONEA,

### Othoiçaz.

G. *CEr da Othoitça?*
I. Othoitça da gure gogoa eta bihotca Jaincoari alchatcea, behar ditugungauçaç hari galdeguiteco.
G. *Obligatuac gara Jaincoari othoitz eguitera?*
I. Bai, hura da Guiriſtinoen eguinbide herſienetaric bat, niholere ecin utcizcoa.
G. *Cergatic bori?*
I. Ceren Jaincoaren lagunçaren beharra bethi baitugu, eta Jaincoac manatcen baitarocu bere lagunça galde deçogula gure othoitcetan.
G. *Nola behar da Othoiz eguin?*
I. Humiltaſun handi batequin, fidancia handi batequin, eta bethi iraunez edo perſeveratuz.
G. *Cer da humilqui Othoitz eguitea?*
I. Hura da cçagurcea eta aithorceoa ezgarela gai edo digne Jaincoaren aitcinean aguerceco, eta hartaz ençunac içaiteco.
G. *Cer da fidancequin othoitz eguitea?*
I. Hura da eſperança içaitea Jaincoac emanen darocula galdeguiten dioguna; baldin hala conbeni bada haren gloriatençat eta gure ſalbamenduarençat.

G. *Fidancia hori cerc emaiten darocu?*

I. Jaincoa guciz ona dela jaquiteac: eta Jesu-Christo gure Jaunaren merecimendu handiec.

G. *Cer da bethi iraunez edo perseveratuz othoitz eguitea?*

I. Hura da behinere unhatu gabe othoitz eguitea, Jaincoac luçatua gatic arren guri emaitera galdeguiten dioguna.

G. *Cer eguin behar da ordaino?*

I. Jesu-Christo gure Jaunaren icenean gure othoitçac eguin behar tugu, ceren hartaz baicic ecin mereci baiteçaquegu ençunac içaitea.

G. *Cein denboraz behar da bereciqui othoitz eguin?*

I. Goicean, arraxean, berelan eta accione phuruen edo principalen hastean, &c.

G. *Gure lanen edo accionen hastean eguiten dugun osthoitça lucea içaitea necessario da?*

I. Ez, asqui da choilqui Jaincoari bihotça alchatcea.

G. *Igandetan eta Bestetan ez da othoits guehiago eguin behar bertce egunetan baino?*

I. Bai, ceren egun hec baitire bereciqui othoitz eguiteco destinatuac eta eslegituac.

G. *Gure othoitcetan cer galdetu behar dioga Jaincoari?*

I. Haren gloria, gure salbamendua, eta gure lagunaren salbamendua aitcina abal detçaqueten gauça guciac.

G. *Ezdetçoquegu galde mundueç ontasunan bicia, ofasuna, &c.*

I. Bai, baldin galdetcen baitugu chede eta fin on batetacotz, guciac Jaincoaren borondatearen azpian eçarriac.

---

HAMALAUR-GARREN LECCIONEA.

Jaunaren othoitças, edo *Pater nosterraz.*

G. *CEin da othoitcic hoberena?*

I. Hura da *Pater noster*, edo Jaunaren othoitça.

G. *Cer da Jaunaren othoitça?*

I. Hura da othoitz bat Jesu-Christo gure Jaunaç berac irakhatsi darocuna.

G. *Erraçu latinez?*

I. *Pater noster*, *&c.* Goiceco othoitcean beçalá, *pag.* 3.

G. *Erraçu escoaraz?*

I. Gure Aita, &c. Goiceco othoitcean beçala, *pag.* 4.

G. *Cergatic diogu*, gure Aita?

I. Jaincoa baithan gure fidancia eçarceco haren ume beçala eta haren gloriaco primo beçala.

G. *Cergatic eztugu erraiten*, ene Aita?

I. Ceren guciac anaja baicara; eta elkharrençat othoitz eguin behar baitugu.

G. *Cergatic diogu*, Ceruetan çarena?

I. Ceren Jaincoa lekhu gucietan içan arrenhale-

fe Cerue baitarocagu haren gloriaren Tronua beçala.

G. *Cenbat galde dire Jaunaren othoitce an?*

I. Badire çazpi.

G. *Esplica çaçu lehena* : Erabil bedi saindu-qui çure icena?

I. Erran nahi da, içan caite eçagutua, adoratua, eta maitatua mundu guciaz.

G. *Esplica çaçu bigarrena*, Ethor bedi çure erresuma?

I. Hori erran nahi da, mana çaçu gure bihotcetan çure graciaz, eta goçaraz gaitçatçu çurequin çure erresumáco gloria sainduaz.

---

## Jaunaren Othoitçaren seguida.

G. *ESplica çaçu hirur-garren galdéa* : Eguin bedi çure borondatea Ceruan beçala lurrean ere?

I. Erran nahi da, içan çaite lurrean obeditua Ceruan çaren beçala.

G. *Esplica çaçu laur-garrena* : Iguçu egue gure eguneco oguia?

I. Igutçu Arimaco eta gorphutceco biciarençat egun guciez behar ditugun gauçac.

G. *Esplica çaçu borz-garrena* : Eta barkha detçagutçu gure çorrac?

I. Hori erran nahi da, iguçu eguiazco penitencia baten dohaina, eta gure bekhatuen barkhamendua.

G. *Cergatic erraiten-duçu*; Guc gure ganaçordun direnei barkhatcen derauztegun beçala?

I. Hori erran nahi da, Jaincoac eztarocula borkhatuco, non eztugun guc barkhatcen.

G. *Esplica çaçu sei-garren galdea*, eta ezgaitçatçula utz tentamendutan erorcera?

I. Erran nahi da, edo khen darocuçu tentationea, edo iguçu haren garaitceco gracia.

G. *Esplica darocuçu çazpi garrena*, Aicitic beguira gaitçatçu gaitcetic?

I. Hori erran nahi da, libra gaitçatçu bicitce huntaco ekhajetaric eta miseriétaric, eta heriotce eternaletic.

G. *Jaunaren othoitçaren akhabança cergatic erraiten da hitz hau*, halabiz?

I. Jaincoa baithan dugun fidancia, eta eguinditugun galde gucietan ençunac içaiteco desira edo guticia erakhustera emaiteco.

---

## HAMABORZ-GARREN LECCIONEA.

### Ainguerúaren Salutacioneaz, edo *Ave Mariaz*.

G. *CEin da Birgina Sainduaren ohoratceco eta haren lagunçaren galdetceco Elíçac principalqui usatcen duen othoitça?*

I. Hura da Ainguerúaren Salutacionea, edo bercela *Ave Maria*.

G. *Erraçu latinezcota escoaraz?*

I. *Ave Maria, &c.* Agur Maria, &c. goiceco othoitcean beçala, *pag.* 4 *eta* 5.

G. *Cein hitcez eguina da Ainguaruaren Salutacionea?*

I. Ainguerு Gabrielen hitcez, santa Elizabetenez, eta Eliçac hei berretu diozcatenez.

G. *Cein dire Ainguеruaren hitçac?*

I. Hauc dire, *Agur Maria graciaz bethea, Jauna da curequin.*

G. *Cein dire santa Elizabeten hitçac?*

I. *Benedicatuo çara emazten artean, eta benedicatua da çure salbelece fruitua.*

G. *Cein dire Eliçac berretu dituen hitçac?*

I. *Maria saindua Jaincoaren Ama, eguiçu othoitz gu bekhatorençat horai eta gure heriotceco orenean:* Halabiz.

G. *Cergatic Eliçac berretu ditu hitz horiec?*

I. Erakhustera emeaiteco cein fidancia handia behar dugun içan Birgina sainduaren laguncan, bereciqui gure heriotceco orenean.

---

## HAMASEI-GARRREN LECCIONEA.

Birgina Sainduaren ganateco debocioneaz, eta Arrosarioaz.

G. TRinitate Sainduaren alderateco gure eguinbidez lekhora, cein da debocionezco pratica guebienic maitatu behar duguna?

I. Hura da Birgina Saindua ganateco debocionea.

G. *Cergatic ?*

I. Ceren hura baita Jaincoaren Ama.

G. *Cergatic craino berce alde ?*

I. Ceren harc eguin nahi baitarocu, eta eguin ahal baiteçaquegu berce cein nahi sainduc baino ungui guehiago.

G. *Cer Probetchu athœratcen dugu Ama Birgina ganateco debocionetic ?*

I. Bia dire principalac.

G. *Cein da lehena ?*

I. Harc laguncen gaitu bicigarreino.

G. *Cein da bi-garrena ?*

I. Harc laguncen gaitu hilcean manera particular batez.

---

## ARROSARIOAZ.

G. *ANdredena, Mariaren cerbitzatceco Guiriſtinoac, eta bereciqui iracurtcen eztaquitenac, maicenic cerbitçatcen diren debocionea cein da ?*

I. Hura da Arroſarioa.

G. *Cer da Arroſarioa ?*

I. Arroſarioa da othoitz bat Birgina Sainduaren ohoretan eguina, ceinetan baitire *Credo* bai, çazpi *Pater*, eta hirur-hogoi eta hiru *Ave Maria*.

G. *Nola eraiten da Arroſarioa ?*

I. Jaincoarc

I. Jaincoaren aitcinean garela orhoituric, eta ceinaturic erraiten da *Credo* guruteearen gainean, eta *Pater* bihi larrien gainean; *Ave Maria* bihi chehen gainean latinez, edo eſcaoraz.

G. *Cergatic erraiten dire çazpi* Pater *hec?*

I. Birgina Sainduaren bicitceco çazpi Miſterio principalen ohoratceco.

G. *Cein dire Miſterio hec?*

I. Haren Concepcionea, Sortcea, Preſentacionea, Anunciacionea, Biſitacionea, Purificacionea, eta Aſſumpcionea.

G. *Cergatic dire hirur-hogoi eta hirur* Ave Maria.

I. Opionea edo uſtea nola baita Birgina Sainduaren lurrean bici içan dela hirur-hogoi eta hirur urthe, hequin ohoratceco.

---

## HAMAÇAZII-GARREN LECCIONEA.

### Gure accionen guiriſtino guiſa eguiteco maneraz.

G. *CEr eguin behar du Guiriſtino bateo iratçarcen denean?*

I. Ceinatu behar da, eta bere bihotça Jaincoari alchatu behar dio, erraiten duelaric.

Ene Jaincoa, emaiten darotçut ene bihotça mila eſquer darotçut ceren conſerbatu naucun gaurco gau huntan. *Ede berce cerbait horrelaco.*

G. *Cer eguin behar du beztitcean?*

I. Archiqui behar du modeſtia handi bat, eta bere bihotça Jaincoari noicic behinalchatu.

G. *Cer eguin behar du beztitu denean?*

I. Hartu behar du ur benedicatua, belhaurinco jarri Guruteefica baten edo cenbait imagina deboten aitcinean eta eguin goitceco othoitça Catichima hunen haſtean cauſiteen den beçala: *Haurrec ere herce memoric guti dutenec eguin ahal deçaquete hunelache.*

Ene Jaincoa, adoratcen çaitut eta maitatcen ene bihotz gucíaz, ezquerrac darozquitçut ceren eman nauçun mundura, eta ceren eroſi nauçun çure Seme maitearen odol preciatuaren goſtus, ceren eguin nauçun guiriſtino eta Eliçaren ume, eta beguiratu gaurco gau huntan gaitz eta arriſcu gaietho gucietaric.

Ene Jaincoa ofriteen darozquitçut çure gloriaren ohoteran ene gogo, hitz, eta accione guciac, eguidaçu othoi gracia egungo egunean bekhatutic ez eguiteco.

*Erran behar dire guero* Pater, Ave, Credo, *latinez edo eſcoaraz goiceco othoitcead diren beçala* pag. 3. *eta* 4. *eta Jaincoaren eta Eliça Ama Sainduaren Manamenduac: eta guero eguin behar da othoitz hau.*

Birgina Saindua Jaincoaren Ama, har naçaçu othoi ni eta nic eguinem ditudan gauça guciac çure lagunça ſainduaren azpian. Ene Ainguerru beguiral ona, eta ene Patroin ſain

dua, ardiets detzadatçue Jaincoa ganic eguin hunen sainduqui iragaiteco behar ditudan gracia guciac. Halabiz.

G. *Guiriftinoac cer eguin behar du lanean edo bere eguitecoa usatuan baften denean?*

I. Erran behar du biotcez are ahoz baino hobequi: Ene Jaincoa, ofritcen darotçut eguitera nohan lana, emocu othoi çure benediciconea.

## Gauça beraren Seguida.

G. G*Viriftino batec eguin guciez Meça sainduaa entçun behar du?*

I. Ezta bekhaturen penan bartara obligatua; bainan hura da accione saindu bat, ceina ezbaitu huts eguiten behar, baldin bere lenec guibelatcen ezbadute.

G. *Jean aitcinean eta ondoan othoitcic eguin behar du?*

I. Bai, hala eguiten dute guiriftino on guciec eta hala eztu behin ere huts eguin behar.

G. *Cer erran behar da jateracoan?*

I. Erran behar da latinez.

*Benedicite, Dominus nos & ea, quæsumus sumpturi, benedicat dextera Chrifti. In nomine Patris, & Filii, & Spiritûs Sancti: Amen.*

*Edo efcoaraz.*

Jesu-Christo gure Jaunac digula guri eta gu har-

cera goacin janharriei eta 'edariei bere benediccione sairdua. Aitaren, eta Semearen, eta Ispiritu sainduaren icenean. Halabiz.

G. *Cer erran behar da jam ondoan?*

I. Erran behar da latinez.

*Agimus tibi gratias, omnipotens Deus, pro universis beneficiis tuis; Qui vivis & regnas in sæcula sæculorum. Amen.*

*Beata viscera Mariæ Virginis, quæ portaverunt æterni Patris Filium.*

*Et beata ubera, quæ lectaverunt Christum Dominum. Fidelium animæ per misericordiam Dei requiescant in pace. Amen.*

*Edo escoaraz.*

Gure ungui eguin guciez esquerrac biburcen darozquitçugu, Jainco guciz botheretsua, ceina bici baitçara, eta ceinac manatcen baituçu mendetaco mende gucietan. Halabiz.

Dohaxua da Maria Birginaren sabela, ceinac ekharri baitu Aita Eternalaren Semea.

Eta Dohaxuac dire Jesu-Christo gure Jaunari esnea eman dioten bulharrac.

Jaincoaren misericordiaz guiristinoen Arima joanac goca daitecila bethiereco basueaz. Halabiz.

# GAUÇA BERAREN SEGUIDA.

G. *ORenac joiten duenean cer eguin behar laiteque?*

I. Haguitz on da Jaincoari bere bihotçaren alchatcea cenbait othoitz laburrez, erranic hunelaco cenbait othoitz: Ene Jaincoa, adoratcen çaitut; *Edo bercela*: Ene Jaincoa, maite çaitut ene bihotz guciaz, eguidaçu bekhaturic ez eguiteco gracia. Jesu-Christo, ene Jauna, benedica çatçu ene lanac: Birgini Saindua, othoitz eguioçu enetçat çure Seme maiteari. *Edo bercela erran daiteque* Ave Maria.

G. *Cer erran behar da Angelus ezquilac joitean?*

I. Erran behar da latinez.

*Angelus Domini nunciavit Mariæ, & concepit de Spiritu Sancto*; eta erran behar da *Ave Maria. Ecce ancilla Domini, fiat mihi secundum verbum tuum: Ave Maria, &c.*

*Et verbum caro factum est, & habitavit in nobis; Ave Maria, &c.*

*Edo escoaraz.*

Jaunaren Aingueruac Mariari eman dio berri on bat, eta harc concebitu da Ispiritu Sainduaganic: Agur Maria, &c.

Huna Jaunaren nescatoa, eguin bequit çure

hitçaren arabera. Agur Maria, &c.

Eta Verboac harru du harraguizco gorphutz bat, eta egotu da gure artean. Agur Maria, &c.

G. Angelus ezdaquitenec cer othoitz eguin deçaquete?

I. Erran deçazuete hiruretan *Pater* eta *Ave Maria.*

G. *Haur bat nola justatu behar da?*

I. Modestiarequin, nihori gaizquiric eguin edo erran gabe.

G. *Egun gucia jostetan eraman behar du?*

I. Ez, joan behar da escolara, eta etchean eguin behar du Aitac eta Amac manancen diotean.

---

## GAUÇA BERAREN SEGUIDA.

G. *GUiristino batec cer eguin behar du etciteracoan?*

I. Goicean beçala belhaurinco jarri behar da bere othoitçaren eguiteco.

G. *Cer othoitz eguin behar du?*

I. Ur benedicatua har ondoan, ceinaturic erran behar du: Ene Jaincoa, adorarcen çaitut eta maitatcen ene bihotz guciaz, esquerrac darozquitçut ceren eman nauçun mundura, eta ceren erosi nauçun çure Seme maitearen odol preciatuaren gostus; ceren eguin nauçun Guiristino eta eliçaren ume, eta conserbatu egungo egunean, eta generalqui çuc eguin darozquidatçun gracia guciez, eta

çure gabic errecibitu ditudan ontasun guciez.
*Erran behar tu guero* Pater, Ave *eta* Credo.
G. *Ondoan cer eguin behar du?*
I. Cenbait denboraz examinatu behar du bere concienciа eguin dituen bekhatuen gaineaо, nola baitire gueçurrac, ez obeditceat, hasarretcea, &c. eta guero erran *Confiteor* latinez edo escoaraz, eça eguin contricionezco Acta bat arraxeco othoitcean beçala *pag.* 7. eta guero erran: Ene Jaincoa, ofritcen darotçut nagaur harcera nohan errepausua; conserba naçaçu othoi gau huntan bekhaturic eguin gabe eta beguira naçaçu arriscu gaichto gucietaric.
G. *Ohean sartcean cer eguin behar du?*
I. Ha tu bear du Ur benedicatua, ceinatu, eta ohean modestqui sarthu, bere burua homendaturic Birgina Sainduari, bere Ainguerи beguirale onari, eta bere Patroin sainduari, hitz hauc edo bertce cenbait hunelaco erranez.
Maria Birgina Saindua Jaincoaren Ama, har naçaçu othoi çure lagunça sainduaren azpian: Ene Ainguerи ona, eta ene Patroin saindua, ardiets daçue gau hunen sainduqui iragaiteco gracia. Halabiz.

## Hemeçorci-garren Leccionea.

Guiriſtino batec eguin behar dituen Acta principalez.

G. *Cein dire Guiriſtino batec maicenic eguin behar dituen Acta principalac.*

I. Hec dire Adoracionezco Actac, Fedezcoac, Eſperançazcoac Caritatezcoac, Contricionezcoac, Galdezcoac, eſquer onezcoaz, Ofrimenduzcoac, &c.

G. *Eguiçu adorationezco Acta bat?*

I. Ene Jaincoa, adoratcen çaitut, eta ahuſpez jarcen naiz gogoz eta bihotcez çure aitcinean; eçaguitcen çaitut ene Creatçailearençat eta ene Jaun ſoberanoarencat; ofritcen darozquitçut ene bicia eta ene ontaſun guciac.

G. *Eguiçu fedezco Acta bat?*

I. Ene Jaincoa, ſinheſten ditut cinez eta fermuqui Eliça Ama ſainduac ſinheſten eta irakhaſten dituen gauça guciac, ceren çuc hari irakhatſiac baitire; eguidaçu othoi gracia ſinheſte hortan biciteeco eta hilceco.

G. *Eguiça eſperançazco Acta bat?*

I. Ene Jaincoa, eſperança du Jeſu-Chriſtro gure Jaunaren merecimenduen berthutez emanen darotaçucula eguin batez çure Parabiſuco gloria Saindua, eta mundu hunetan harat

hedatceco behar ditudan gracia guciac, ceren çuc aguindu baitarozquiguteçu, eta çu baitçara guciz ona, eta çure hitçaren atchiquitcera lejala.

G. *Eguiçu caritatezco Acta bat, erran nahi da, Jaincoaren eta lagunaren amodiozco Acta bat.*

I. Ene Jaincoa, maite çaitut ene bihotz guciaz: eta gauça gucien gainetic, ceren çu baitçara guciz maitagarria eta ahala perfetaa: maite dut halaber ene laguna nere burua beçala çure amoreac gatic.

G. *Eguiçu contricionezco Acta bat?*

I. Ene Jaincoa, barkhamendu esque nagotçu, &c. *Arraxeco othoitcean beçala*, pag. 7.

G. *Eguiçu galdezco Acta bat?*

I. Ene Jaincoa ind... çu othoi ene Salbamenduan trabailatceco behar ditudan gracia guciac, galdeguiten darozquitçut Jesu-Christo gure Jaunaren merecimenduen berthutez.

*Hemen bat bederac eman deiçaque bat banazca galdetu nahi dituen gauçac, nola baitire comparacionera, bere bocacionea edo certara deithua den eçaguteea, eguiteco batetic ungui atheratcea, Jaincoaren gloriaren ohorcea aitcinatcea bere offasuna, eta berce horrelaco.*

G. *Eguiçu esquer onezco Acta bat?*

I. Ene Jaincoa, esquerrac bihurcen darozquitçut çuc guciz onac eman darozquidatçun.

ontasun eta gracia gueiez, eta bereciqui ceren eman nauçun mundura, eta ceren erosi nauçun çure Seme maitearen odol preciatuaren gostus; ceren eguin nauçun guiristino eta Eliçaren ume, eta conserbatu ene biciaren oren eta momentu guciez.

G. *Guiçu ofrimendezco Acta bat?*

I. Ene Jaincoa, ofriteen darozquitçut ene gogo, hitz, accione, lan, nahigabe, eta sofricari guciac, ene ontasun guciac, ene bicia ere; emoçute othoi çure benediccione saindua; guciac çu cat dire; guciac çuregatic helen çaizquit; guciac çure ganic beldu caizquit guciac çure laguntça saindaren azpian eçarcentut.

---

# JESUS ENICEN SAINDUAREN

## LETHARINAC.

KYrie eleison.
Christe eleison.
Kyrie eleison.
Jesu audi nos.
Jesu exaudi nos.

| | |
|---|---|
| Pater de Cœlis Deus, | Miserere nobis. |
| Fili Redemptor mundi Deus, | mis. |
| Spiritus Sancte Deus, | mis. |
| Sancta Trinitas unus Deus, | mis. |
| Jesu Fili Dei vivi, | mis. |

Jesu splendor Patris,
Jesu candor lucis æternæ,
Jesu Rex gloriæ,
Jesu sol justitiæ,
Jesu Fili Mariæ Virginis,
Jesu Admirabilis,
Jesu Deus fortis,
Jesu Pater futuri sæculi,
Jesu magni Consilii Angele,
Jesu potentissimè,
Jesu obedientissime,
Jesu mitis & humilis corde,
Jesu amator castitatis,
Jesu amator noster,
Jesu Deus pacis,
Jesu Auctor vitæ,
Jesu Exemplar virtutum,
Jesu Zelator animarum,
Jesu Deus noster,
Jesu refugium nostrum,
Jesu Pater pauperum,
Jesu Thesaurus Fidelium,
Jesu bone Pastor,
Jesu lux vera,
Jesu sapientia æterna,
Jesu bonitas infinita,
Jesu via & vita nostra,
Jesu gaudium Angelorum,
Jesu Rex Patriarcharum,
Jesu inspirator Prophetarum,

Miserere nobis.

Miserere nobis.

Jeſu Magiſter Apoſtolorum,
Jeſu Doctor Evangeliſtarum,
Jeſu fortitudo Martyrum,
Jeſu lumen Confeſſorum,
Jeſu puritas Virginum,
Jeſu gloria Sacerdotum, *Miſerere nobis.*
Jeſu Corona Sanctorum omnium, miſ.
Propitius eſto, parce nobis Jeſu.
Propitius eſto, exaudi nos Jeſu.
Ab omni peccato, libera nos Jeſu.
Ab irâ tuâ, lib.
Ab inſidiis Diaboli, lib.
A ſpiritu fornicationis, lib.
A morte perpetuâ, lib.
A neglectu inſpirationum tuarum, lib.
Per Miſterium ſanctæ Incarnationis tuæ, lib.
Per Nativitatem tuam, lib.
Per infantiam tuam, lib.
Per diviniſſimam vitam tuam, lib.
Per labores tuos, lib.
Per Agoniam & Paſſionem tuam, lib.
Per Crucem & derelictionem tuam, lib.
Per languores tuos, lib.
Per mortem & ſepulturam tuam, lib.
Per Reſurrectionem tuam, lib.
Per Aſcenſionem tuam, lib.
Per gaudia tua, lib.
Per gloriam tuam, lib.
Per dulciſſimam Virginem Mariam Matrem tuam, libera nos Jeſu.

Agnus

Agnus Dei, qui tollis peccata mundi, Parce nobis Jesu.

Agnus Dei, qui tollis peccata mundi, exaudi nos Jesu.

Agnus Dei, qui tollis peccata mundi, miserere nobis Jesu.

## OREMUS.

DOMINE Jesu-Christe, qui dixisti, petite & accipietis, quærite & invenietis, pulsate & aperietur vobis: quæsumus, da nobis petentibus divinissimi tui amoris affectum; ut te toto corde, ore & opere diligamus, & à tuâ numquàm laude cessemus. Qui vivis & regnas Deus in sæcula sæculorum. Amen.

---

## BIRGINI MARIA SAINDUAREN.

### LETHARINAG.

KYrie eleison.
Christe eleison.
Kyrie eleison.
Christe audi nos.
Christe exaudi nos.
Pater de Cœlis Deus, miserere nobis.
Fili Redemptor mundi Deus, miserere nobis.
Spiritus sancte Deus, miserere nobis.

Sancta Trinitas unus Deus, miserere nobis.
Sancta MARIA, Ora pro nobis.
Sancta Dei Genitrix,
Sancta Virgo Virginum,
Mater Christi,
Mater divinæ gratiæ,
Mater purissima,
Mater castissima,
Mater inviolata,
Mater intemerata,
Mater amabilis,
Mater admirabilis,
Mater Creatoris,
Mater Salvatoris,
Virgo prudentissima,
Virgo veneranda,
Virgo prædicanda,
Virgo potens,
Virgo clemens,
Virgo fidelis,
Speculum justitiæ,
Sedes sapientiæ,
Causa nostræ lætitiæ,
Vas spirituale,
Vas honorabile,
Vas insigne devotionis,
Rosa mystica,
Turris Davidica,
Turris eburnea,
Domus aurea,

Ora pro nobis.

Ora pro nobis.

Fœderis Arca,
Janua Cœli,
Stella matutina,
Salus infirmorum,
Refugium peccatorum,
Consolatrix afflictorum,
Auxilium Christianorum,
Regina Angelorum,
Regina Patriarcharum,
Regina Prophetárum,
Regina Apostolorum,
Regina Martyrum,
Regina Confessorum,
Regina Cleri,
Regina Sanctorum omnium,

Ora pro nobis.

Agnus Dei, qui tollis peccata mundi, parce nobis Domine.

Agnus Dei, qui tollis peccata mundi, exaudi nos Domine.

Agnus Dei, qui tollis peccata mundi, miserere nobis.

℣. Ora pro nobis Sancta Dei genitrix.

℟. Ut digni efficiamur promissionibus Christi.

OREMUS.

DEfende, quæsumus Domine, Beatâ Mariâ semper Virgine intercedente istam ab omni adversitate familiam, & toto corde tibi prostratam ab hostium propitiùs tuere clementer insidiis. Per Christum Dominum nostrum. Amen.

# ERREGUEREN PRIVILEGIOA.

LUIS Jaincoaren graciaz Franciaco eta Nafarroaco Erreguec ; Gure Conseiller maite eta lejal , gure Parlamentaco Gorthcac dagoz caten gendei , &c. Salutancia : PIARRES DE LAVIEUXVILLE[a], Bayonaco Jaun Aphezpicuac gure Conseiluetaco Conseiller maite eta lejalac aditcera eman darocu gure Privilegioa behar ducla bere Diocesan behar ditüen liburuen imprima arazteco: Eta hartaracotz , Jaun Aphezpicu hari arseguin eguin nahis , permetitcen diogu placer duenari imprima araz detçon *Bere Diocesaren cerbitçuco behar ditüen Breviario... Catichima , Ordenança... eta Instruccione guciac* ; eta hec sal araz detçan gure Erresuma gucian nahi duen beçarbatetan egun danichamar urthez. Jaun Aphezpicu harc hautatcen duen Imprimatçaileaz bertce gucici debecatcen diotegu erran direm liburu hec edo hequin cenbait parte imprimatcea edo salcea cer nahi erreceluren azpian , non ezduten permissione berariazco bat isquiribuz Jaun Aphezpicu haren ganic edo haren dretchoa duquetenen ganic , hala imprimatuco diren liburuac confiscatceco , eta hirur mila liberaco amanda bat pagatceco , penaren azpian. Parisien emana Erearoaren hirurean mila

çazpi ehun eta hogoi eta bederatcian, eta gure erregue denboraco hamalaurgarrenean. Erreguec bere Conseiluan.

SAINSON.

*Erregistroan eçarria, &c. Sinatua,* Le Mercier, Sindic.

Jaun Aphezpicuac eman dio bere Privilegioa P. Fauvet, bere Imprimatçaileari.

---

*Meça nola Lagundu Behar den.*

1. NOiz ere Apheça arribatu baita Aldareco escaleren edo Aldarearen oinetaco thaularen ondoan, Meça lagunçailea emaiten da haren escuineco aldean, harcen dio escu escuinaz bere boneta, eta Aldarean baldin bada Custodioric, genuflexione eguiten du galçadaren gainean, eta Custodioric ezbada, agur handi bat makhur turic eguiten du, eta eramaiten du boneta hartaco den lekhu batera.

2. Guero belhaurinco jarcen da lurtean escalerez beherago, Apheçaren ezquerreco aldean, hura baino guibelachecago, eta Meça gucian ezta behinere liburna dagoen aldean belhaurinco jarri behar, bainam bethi liburuaz berce aldetic.

3. Apheçati ihardeſten dio clarqui eta emequi, ez fitegui joanez ; behinere ihardeſten haſi gabe Apheçac hitça akhahatu duquen artean, eta ez goregui, ezbeheregui ihardetſiz, bainan aphur bat gora behera Apheçac beçala.

4. Introiboen ondoan Apheça Aldarera igaiten denean, lagunçaileac eſcuaz alchatcen dioza Eliçathorra eta Sotana traba deçaten beldurrez : Meça lagunçaillea bera ere alchatcen da, eta baldin badire eſcalera mail bat baino guehiago, belhaurinco jarcet da hetaric beherenean ; bainan bat baicic ezbada, egon behar da belhaurinco lurrean, lehen cen beçala, Apheçaren bardinean ez içaiteco.

5. Liburuaren eramaiteco edo berce cerbaitetaco Aldarearen aitcinean paſatcen den aldi guciez beherean eguiten du genuflexione bat edo agur handi bat, behinere Aldarearen oinetaco thaularen gainetic Apheçaren aldean paſatu gabe ; eta Apheçac erraiten duenean, *Orate fratres*, eztu ihardetſibehar *Suſcipiat* hura Aldarerat oſſoqui itçuli daitequen artean : Eta ceinatu behar da hura ere, Apheça ceinatcen den aldi guciez.

# MEÇA LAGUNCEAN.

Cer ihardetsi behar den.

*Apheçac.* INtroïbo ad altare Dei.
*Lagunçaileac.* Ad Deum, qui lætificat juventutem meam.

A. Judica me Deus, & discerne causam meam de gente non sanctâ, ab homine iniquo & doloso erue me.

L. Quia tu es Deus fortitudo mea: quare me repulisti, & quare tristis incedo, dum affligit me inimicus?

A. Emitte lucem tuam & veritatem tuam, ipsa me deduxerunt & adduxerunt in montem sanctum tuum & in tabernacula tua.

L. Et introïbo ad altare Dei ad Deum qui lætificat juventutem meam.

A. Confitebor tibi in cytharâ, Deus, Deus meus, quare tristis es anima mea, & quare conturbas me?

L. Spera in Deo, quoniam adhùc confitebor illi salutare vultûs mei, & Deus meus.

A. Gloria Patri, & Filio, & Spiritui sancto.

L. Sicut erat in principio, & nunc, & semper, & in sæcula sæculorum. Amen.

A. Introïbo ad altare Dei.

L. Ad Deum qui lætificat juventutem meam.

A. Adjutorium noſtrum in nomine Domini.
L. Qui fecit cœlum & terram.
A. Confitebor Deo, &c.
L. Miſereatur tui omnipotens Deus, & dimiſſis peccatis tuis, perducat te ad vitam æternam.
A. Amen.
L. Confiteor Deo, &c.
A. Miſereatur veſtri, &c.
L. Amen.
A. Indulgentiam, &c.
L. Amen.
A. Deus tu converſus vivificabis nos.
L. Et plebs tua lætabitur in te.
A. Oſtende nobis Domine miſericordiam tuam.
L. Et ſalutare tuum da nobis.
A. Domine exaudi orationem meam.
L. Et clamor meus ad te veniat.
A. Dominus vobiſcum.
L. Et cum ſpiritu tuo.
A. Kyrie eleiſon.
L. Kyrie eleiſon.
A. Kyrie eleiſon.
L. Chriſte eleiſon.
A. Chriſte eleiſon.
L. Chriſte eleiſon.
A. Kyrie eleiſon.
L. Kyrie eleiſon.
A. Kyrie eleiſon.

A. Dominus vobiscum.
L. Et cum spiritu tuo.
A. Initium *seu* sequentia sancti Evangelii secundum, &c.
L. Gloria tibi Domine,
A. Dominus vobiscum.
L. Et cum spiritu tuo.
A. Orate fratres, &c.
L. Suscipiat Dominus hoc Sacrificium de manibus tuis ad laudem & gloriam nominis sui, ad utilitatem quoque nostram, totiusque Ecclesiæ suæ sanctæ.
A. Per omnia sæcula sæculorum.
L. Amen.
A. Dominus vobiscum.
L. Et cum spiritu tuo.
A. Sursum corda.
L. Habemus ad Dominum.
A. Gratias agamus Domino Deo nostro.
L. Dignum & justum est.
A. Per omnia sæcula sæculorum.
L. Amen.
A. Et ne nos inducas in tentationem.
L. Sed libera nos à malo.
A. Per omnia sæcula sæculorum.
L. Amen.
A. Pax Domini sit semper vobiscum.
L. Et cum spiritu tuo.
A. Dominus vobiscum.
L. Et cum spiritu tuo.

A. Ite Missa est, *edo* Benedicamus Domino

L. Deo gratias.

*Defunctuen Mecetan Apheçac erraiten du.*

A. Requiescant in pace. *Eta Meça lagurçaileac.*

L. Amen.

A. Dominus vobiscum.

L. Et cum spiritu tuo.

A. Initium sancti Evangeli secundùm Joannem.

L. Gloria tibi Domine.

A. In principio erat verbum, &c. & veritatis.

L. Deo gratias.

*FINA.*

FF. MM. CAPUCCINORUM
BIBLIOTHECA
LECAROZ